

anaitasuna

ZENBAKI
BEREZIA

1976.eko Otsailaren 15ekoa
311. zenbakia 25 Pta.

herria
kultura
bidean



EUSKAL FRUITU BAT

EUSKAL HERRIKO eskualde guztietako lagunez osatua. Pedagogia, linguistika eta zientzi arlo ezberdinetan ongi jantzita dagoen gazte talde teknikoa.

FRUITU BAT, bai, eta jadanik heldua. Izerdi artean eta neke askoren ondoan lortu duguna.

HORIXE DA IKER, Euskal Herriaren onerako pentsatu, mamitu eta buruturiko erakunde bat.

Euskal liburuak, pedagogi textuak, haurrentzako ipuinak, euskara ikasteko metodoak, diskoak, kaseteak, posterrak, litografiak... hauek guztiok aurki ditzakezu gudan.

ZATOZ GUREGANA. Euskaldunoi ahal dugun guztian laguntza eskaintzeko gaude. Zeuen zerbitzuan gaituzu IKERren.



**HEZIKETA - ZERBITZU
ETA KULTUR - ERAGINTZA**

Bilbon, Zabalbide, 68-entrlo., eskuina.
Tif.: (94)4331615-4337169



zuk zabaltzeko gaude

EUSKAL HERRI BERRIA

EUSKAL HERRI IKASIA

Euskararik gabeko Euskal Herriaren zati handi bat —handiegia, lautik hiru ez ote?— ezagutzen du ANAITASUNAK; baina euskararik gabeko Euskal Herririk ez dugu nahi.

Orain dela hiru urte (1973), Euskal Herrian egindako galdeketa batek ondoren hauetxek eman bide zituen: 33 % euskaldunek ulertzen zuten euskara (miloi bat lagun eskas); 25 % euskaldunek egiten zuen euskaraz (750.000 lagun inguruk); 17 % euskaldunek irakurtzen zuen euskaraz (510.000 lagun inguruk); 10 % euskaldunek idazten zuen euskaraz (300.000 lagun inguruk). Ba liteke zenbaki hauk goiegitik ibiltzea garai hartan; dena dela, ezkortasunerako zenbakiak ziren orduan bertan, eta ez baikortasunerako. Egoera baten adierazgarri agian bai, inolaz ere ez etorkizun baten oinarri.

Zer egin behar zen euskararen eta Euskal Herriaren larrialdi hartan? Bi jokabide izan zitezkeen euskaldunon aldetik eta, beraz, bi etorkizun ezberdin euskararentzat:

Lehengoa, euskara iraganeko kultur altxor bat bihurtzea: garbi eta txukun, orbanik gabe, gordetzea euskara; iragan herri baten lekuko, izan zen herri zahar baten hizkuntza zaharra arretaz aztertuko zuen zenbait hizkuntzalarik. Eta euskarekiko joera euskaltzaleak, hizkuntza hori "zaintzea", garbitzea, txukuntzea, dotoretzea, aztertzea eta geure-geurea zelako gordetzea izan beharko zuen.

Bigarrena, euskal olde berri batentzako euskara burrukabide izatea: euskarak ez zukeen museoko pitxi eder bat izan behar, ez eta gizarte bazterreko hizkuntza lotsati bat; eta bai Euskal Herri osorako zabaldu behar zukeen hizkuntza oldartsua eta kementsua. Euskarak hizkuntza modernua behar zuen izan, kultur hizkuntza, herri baten komunikabide egokia, herri baten bizitzaren adierazgailu trebatua... ALFABETATZEN eta EUSKALDUNTZEN oldearen burrukabide bilakatu da euskara.

Olde eredugarri dira ALFABETATZEN eta EUSKALDUNTZEN gaurko Euskal Herrian. Eta ez hizkuntza mailan bakarrik; kultur mailan eta politikaren mailan ere bai. Euskarari bere lotsa kendu diote, beldurra uxatu diote. Euskara ez da arloteen mintzabide. Euskararen zailtasunaren mitua desegin dute. Amaren esne bidez bakarrik ez baino liburuaren bidez ere ikas daiteke euskara... Eta euskaldun berri asko dira gaurko euskararen indarra; eta euskaldun ikasi edo eskolatu asko dira gaurko eta biharko euskararen itzaropena.

Euskarari eustearekin bakarrik lehengo eta atzoko Euskal Herria erdi-hilari eutsiko diogu; euskara zabaltzarekin eta ikastearekin, aldiz, Euskal Herri berriaren etorkizuna prestatuko eta finkatuko dugu.

ALFABETATZEN eta EUSKALDUNTZEN oldea Euskal Herri berria sortzen ari da; eta Euskal Herri berri hori derrigorrez izango da Euskal Herri ikasia. Euskaldun berri eta ikasiena da, hein handi batetan, Euskal Herriaren etorkizuna.

IRKIBIDEA

EUSKAL HERRI IKASIA.

Tantaka.

Alfabetatzearen metodologia.

Alfabetatzea barrutik
P. Elgezabal, J. L. Goikoetxea, J. Aurre.

Gure Herria euskaldun-
duz, alfabetatuz joan ala
J. L. Lizundia.

Araba
Juanjo.

Gipuzkoa
Joxe M. Odriozola.

Bizkaia.

Arratia
Arratiako Alf. Taldea.

Busturia
Joan Azurmendi.

Butroe
Butroeko Alf. Batzordea.

Durango
Durangaldeko Alfabetat-
zekoek.

Lea-Artibai
Lekeitiokoak.

Hibaizabal alde
Hibaizabal eskualdekoek.

Santutxu.

Liburuak
Ramon Garai.

Hizkuntza
J. R. Etxebarria, X. Kintana.

Zapaburu birbiztua.

Maketapena: Fernando.

Irudiak: Fernando eta Olariaga.





Bellas Artes-en greban

Bilboko **Escuela Superior de Bellas Artes**-eko estudiantetarako, Urtarrilaren 26tik, greban ari dira. Arrazoiak: irakasle inkompetente bat, 5 urtean daramatzana, egotzi nahia eta horrexen postua betetzera letorkeena hautatzeko beraiek ere esku izatea. Greba dela eta, egin dituzten asanbladetan, estudiantetok demokraziaren arazoa, eskolaren orain arteko martxa, etorkizunari buruzko soluziobideak eta Euskal Unibertsitatearen premia aztertu dituzte.

Galdakoako alkatea hil dute

Otsailaren 9an Galdakoako alkatea den Victor Legorburu jauna tiroz hila izan zen bere eskoltako polizia batzurekin kalera irtetan. Polizia bat ere, F. Ruiz Sánchez, tiroz gaizki kolpatua geratu zen, bizia salbatu arren. Ekintza horren egileak, dirudienez, ETAkoak izan dira. Galdakoako alkatea, prentsak berak aitortu duenez, ez da oso euskaltzalea izan, baina ez dirudi horrek pertsona bat hain hozki hiltzeko aski motibo denik. Goian bego.

Deustuko Zubibarrikoek Arestiri omenaldi

Deustuko Zubibarri kultur elkarteak Gabriel Aresti euskal poetaren omenez, aste bat muntatu dute Otsailaren 16tik 20ra. Horretan X. Gereñok, J. Juaristik, X. Kintanak eta beste zenbait hizlarik hartuko dute parte, Gabrielen pertsona, obra eta esangura adierazteko.

X. Kintanak bi hitzaldi

Urtarrilaren 26an, Madrileko Atheneoan X. Kintanak hitzaldi bat egin zuen euskaraz XVI eta XVII mendeetako euskal literaturari buruz. Dakigunez, Madrileko Atheneoan Bozas-Urrutia herikideak darama euskal kulturaren arloa, eta berari esker hainbat mintzaldi entzun ahal izaten dira hartza eta gurbitzaren hirian.

Urtarrilaren 31an, Valladoliden, euskal estudianteen eskariz, bertako Unibertsitatean beste hitzaldi bat, erdaraz bera, egin zuen. Gaia: Euskararen batasuna.



GARBONETAKO ZUHAITZAK IKASTOLEN ALDE

Garbonak inguruan Bilbon, Santutxun eta Portugaleten unibertsitari talde bat Gabonetako izeiak saltzen aritu zen,

hortik lorturiko diruaz Bizkaiko ikastolen aldeko laguntza egiteko.

Jakin dugunez, salmenta horretatik 95.500 pezeta lortu izan dira, kontu ireki batetan, **Caja Laboral Popular**-en ikastolen alde sartu direnak.

Diru horrekin, eta hori gehitzera etor daitezkeen laguntza leenaz, ikastola konkretu baten alde barik, Bizkaiko ikastolen osotasunari bultzada emateko asmoa dago. Horretarako Gipuzkoan jadanik dagoenez, Bizkaian ikastolarteko koordinadora bat eratzea litzateke onena, eta dirudienez ideia hori guraso eta irakasle askoren buruetan aspalditxoan dabil. Omenigarria litzateke, nik uste, helburu eder hau lortu erabiltzeko guztien artean, lehenbailehen harremanetan jarri.

Idea honetan interesa duketenek Guillermo Asteiz Herzegana jo dezakete, 4310941 telefonora deituz.

Hiru koloretako zurrumurru bat

Ez dakigu egia den, horregatik zurrumurru gisa ematen dizuegu. Hortik behin eta berriro entzun dugunez, aurreko Basko egunerako, gobernuak ikurrina, euskal bandera, eta beste zuzen utziko omen du; espainolaren ondoan, noski.

Arrantzale kanten

1. lehiaketan Ondorroan

Otsailaren 14-21-28 egunetan, kostaldeko herri horietan arrantzale kanten lehenbiziko lehiaketa ospatuko da. Hurrengoak: 14ean, epaimahaikoek, Jose M.^a Altuna, Ignacio L. Luzuriaga, Ion Oñatibia, Manuel Urbieta (musikarako), Martin Apalategi eta X. Kintana (hitzetarako), beren erabakia emanen dituzte.

ELAIS ALAS YURRE

DANTZATOKI GOXOA

Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10 ra.
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

SOINU KOADROFONIKOA

KAFETEGI **AMA & DUR** RESTAURANTIA

alfabetatzearen metodologia



METODOAK

Alfabetatze kanpainen gai nagusia euskara bera dela esan dezakegu. Euskal kultura lantzeko metodoak beharrezko dira. Euskal Herrian dugun Alfabetatze kanpainak, izaera jator eta berekoi bat du. Egin da Alfabetatzea Kuban, Brasilen eta beste leku askotan. Euskal Herriko alfabetariok, herri horietatik zerbait hartu ahal izan arren, geure alfabetatze bat eraiki behar izan dugu. Metodogintza aparta ez denez, horretan ere saiatu beharra izan dugu. Hemen guk aipatzen dugun metodogintza ez da haurrentzat ez eta ikastoletarako zuzenean. Berez eskoletan eman behar zena osatzeko egina da. Eskoletan ematerakoan ordea, beste metodo tipo bat antolatuko dugu. Denpora konkretu eta gai konkretu bat lantzeko metodoa aipatzen dugu.

Esku artean ditugun metodoak ere guregandikoak dira. Alfabetatze kanpainetan lehen eta orain darabiltzagun metodoak, neurri baten barruan eta karakteristika bereizi batzuekin sortuak dira. Garrantzitsuena, bestalde, nahiz honelakoa, nahiz halakoa izan, metodo bat izatea da. Gure artean ba da metodo bat.

Nork uka metodo osoago eta hobeagoak asma ditzakeela! Baina dugun diru ezarekin, gaur arte izan ditugun oztopo soziopolitikoekin, Estatu bategandiko laguntasunik gabe, ez da errez lan egitea.

Argi dagoena zera da: Gaur arteko alfabetatze metodoetan, ematen dela jadanik, Alfabetatzearen izpiritua, jomuga eta helburua zertan datzan. Nire ustez ez da gutti. Orain artekoa ona izan delako, eta orain artekoak oraindik aurrera fruitu asko eta oparoa emango digulako, halegia.

Alfabetatzeko metodo hau irakurtzen eta idazten ikasteko da. Ikaste hori berriz denbora nehurtu eta jakin batez egiteko. Ilunabarrean izatean, eguneko lan guztia burutu ondoren, eskola usaina eta edukitzean, ba dira oztopo eta akatsak. Argi dago berriz, Alfabetatzea ez dela bertan lau urtetan egoteko ekintza. Alfabetatzetik, Alfabetatzean diharduten koardruak berak izan ezik, pasatu egin behar da. Ahal den jenderik gehien igaro ere, Alfabetatzea masentzat egina da eta. Gero abiatuko da bakoitza bere ekintzetara, Alfabetatzera etorri aurretikoetara edo berrietara.

ALFABETATZERAKO METODOA EGITEAN DIREN OZTOPO ETA ZAILTASUNAK

Bigarren mailarako metodo bat egiterakoan aurkitzen dira oztopoak. Lehen mailarako Euskaltzaindiaren zereginen alde-tik, ez da iluntasunik. Euskara zabaltzea, jendeari idazten eta irakurtzen irakastea, Alfabetatze kanpainen zeregina da. Lehenengo maila aurreko hau egin behar da batipat. Lur labana topa dezakegu gaietan sartzean. Kontzientziate arloan murgiltzen garenean, nahiz eta Alfabetatzea erro-rotik kontzientziatea izan, orduan sortzen dira iskanbilak eta ulertezinak. Guk ba dakigu kontzientziate behar dela, horretarako lantzen dugu euskara eta euskal kultura. Baina irakur-gai bat egin edo aukeratu behar denean, Alfabetatze meto-dorako, abididez, Euskaltzaindiaren bidea ba dakigu, gure aldetik gai nagusia euskal kultura da, baina praktikak proble-mak sortzen ditu. Guk euskal kultura lantzean osotzen dugu pertsona euskalduna euskalduntasunean. Era berean herri mailako euskalduntasuna. Modu honetan Alfabetatzea zabal gelditzen da pentsakera alorrean. Bestalde, Euskaltzaindiaren arauen heinean, mugitzen gara. Metodo tipo hau gure eguneroko alfabetatzean erabiltzen da. Jadanik, Euskaltzain-dia erakunde bat dela eta bere zereginak dituela. Horrek ez du esan nahi ez ditugula beste erakunde batzu eskuratu behar.

Bizkaiko Alfabetatze kanpainen hastapenetan, ba zen Rikardo Arregik eta osaturiko metodo bat. Bera aztertzeak nahiko argitasunik ematen digu Alfabetatzeko zereginari dagokion metodogintzaz zerbait esan ahal izateko.

LEHEN MAILAKO ALFABETATZE METODOA

Nolakoa zen? Irakurgaiak eta gramatika azalpenek osatua. Gramatikaz: ortografia, deklinabidea, joskera eta aditza lant-

zeko. Irakurgaietarako euskal literaturatik zenbait zati hautatuak. Zati hautatuon bidez hiztegia lantzen du batez ere. Bizkaieraz eta gipuzkeraz datoz irakurgaiak erdiak. Enparauak beste euskalkietakoak dira. Helburua hizkuntza idatziaz baliatzea denez, irakurtzeari eta idazteari ematen zaio garrantzia batipat.

Rikardo Arregik eta osaturiko lehen alfabetatze metodoan haxe irakur dezakegu:

"Hiru horri, sail horietan —literaturako zati hautatuak, A. Villasanteren Euskal Gramatika Laburra, Euskal Literaturaren izaera eta historia— finkatzen da euskal alfabetizatzearen muin gutzia".

Eskolei buruz mintzatzean:

"ordu betetik behera guttiegi; ordu ta erditik gora gehiegi" dela dio. Bertako giroa zer zen uler dezagun, zati batean honela dio:

"Hau idatzeari bildur psikologikoa galdu erazteko da". Euskara bera aipatzen duen gutzian Bizkaian bizkaieraz, eta Gipuzkoan gipuzkera, baina batasun baten barruan. Beti 69an mintzatzen dela, Irakasle Txartelak emateko, azterketa egin behar zituela Euskaltzaindiak.

Irakasleak eragile ere izan behar duela zioskun:

"...ez du irakasle bakarrik izan behar, Euskal Alfabetatzearen eragile ere izan behar du".

Horretarako, "Bilkura, hitzaldi eta irakastaldiak behar dira". Baita "...gauza horien berri emateko irakasleen artean aldizka horritxo egoki eta apropos batzu zabaltzea".

Euskaltzaindiaren zeregina metodo arloan nolabait finkatzen du. Euskaltzaindiaren zeregina zer euskara eta nola eman. Baita nor da irakasteko gai ere, tituluak emanaz. Alfabetatzeak herri zabalera heltzeko ere teknika batez baliatu beharra zegoen. Hortik ondoan dioguna. Propaganda beharrezkoa da, Alfabetatzea jendetza handiarentzat egin da eta. Beraz. "...premiatzko euskal aldizkari, irrati saio eta kantuetan gai hau erabiltzea." "Baita hitzaldietan eta bertsolariaren ahotan".

Orain arte aipatua, Rikardo Arregik eta, Alfabetatzearen lehen maila deitzen dute.

BIGARREN MAILAKO ALFABETATZEA

Haseran esan bezala, bigarren mailako Alfabetatzeak sail berezi bat osatzen du. "Alfabetatzea irakurtzen erakuste hutsarekin ez da bukatzen". "Hori lehen pausu bat besterik ez da, eta pausu hori kasikan alferrikakoa izango da, ondoren beste batzu ez baldin badatoz". "Kultura euskaratu bat ere irakatsi behar dugu... gure errealitatearen ezaguera sustraituenak herriaren eskuetan jarriko dituen".

Horrekin "Euskal aldizkariaren eta liburuen irakurleen biltzarrrak sortu nahi genituzke". Bigarren maila honek "liburu apropos batzu eskatzen ditu". Lehen mailako alfabetatzerik gabe bigarrena ezina dela dio, "baina bigarrena gabe lehenengo hutsa da".

1971 urtean Arrasaten egin zen Alfabetatze batzarre orokorrean, Aingeru Irigaray euskaltzain osoak, Rikardo Arregi zenari "...oroitzapen bero bat" egin ondoren, "nik laburki adieraziko dizuet zuen egin beharre zein den handia eta baitetzpadakoa" esan zigun Alfabetatzeko nagusi gisara. "Liburuak eta astekariak, bizitzekotan, irakurleak beharko ditugu. Eta lehenbizi gramatikako ikasgai sakonetan sartu gabe, estetik irakurtzen saiatu, ondo itzulikatuz erdorara, esaterak eta hitzak ikasiz, jakin arte zehazki". "Textu errazen eta garbienak, euskara batasunera eramaten dutenen artean".

Karmelo Etxenagusiarren Lorategia liburua ederra gomen-

datu du. Bai giputz euskalkikoak eta bai bizkaiko euskalkoak bertan direlako. Joan den mendeko eta gaur egun autorea gomendatu ditu. "Ongi irakurtzen ikasi ondotik, ez lehenago, idazten irakatsi behar da. Eta ahal bezainbat batasunerako ortografian; baina Euskaltzaindiak gomendatzen erregelak eta normak ez dakizkitenek, gaizki usatzea baino usatzea hobe. Batasuna ez baitago xoilik usatzean, aise lehenago dira morfologiaren erregelak; deklinazio, konjugazio eta lexiko edo hiztegi arau batza".

Arrasaten izan genuen batzar eztabaidatsu honetan Euskaltzaindiaren Alfabetatzeak dituen mugak jartzen dira. Oraingoan ez da metodorik ematen, baina metodo bat egiteko rakoan gorde behar genituen baldintzak bai ematen dira. Eguneroko Alfabetatzea konplikatuxeago zelako eta kasu gehiago garrantz eta gordina zelako, zenbait jende mindurikakoa zela zen batzarre hartatik.

1971.ean, LEHEN URRATSAK liburuxka argitaratzen da. Bai eta Gipuzkoako Alfabetatze Batzordekoen **arriketak** argitaratzen dira. Une honetan inor aipatzekotan, Joxe Bernardo Jauregi, Mikel Arregi eta Andoni Sagarna aipatu behar ditugu. Xabier Garmendia eta beste zenbait ahaztu gabe. Sasoi honetan eman ziren, irakasle eta eragile mailan Bizkaikoekiko herri mailan aberatsenak. Garai honetako textugintza hemendik sortu zen. Bai tamalgarrria izan zela, Alfabetatzeak talde baten galtzea.

LEHEN URRATSAK liburuxka berehala agortu zen. Ortografia, deklinabidea, joskera eta aditza lantzen ziren. Textu hau izan zela esango nuke, bere mami eta pedagogikoa gatik, gramatikaren gauzarik funtsezkoenak ikaslego zela irakurteko hedatu zituena, Alfabetatzeko textugintzak ezin ahaztu kate maila bat da hau.

1972.ean, Bizkaiko Alfabetatze Bulegoak, Ortografia, Deklinabidea, Joskera, Aditza eta bakoitzako Ariketak argitaratzen ditu. Urte berean, Kanta liburua eta gramatikaren laburpena argitaratzen ditu, ordurate Bizkaiko Alfabetatzearen eta Gipuzkoarekin harreman hestuetan ibili zebilen Patxi Etxebarriaren gezabalek.

1971-1972 ikasturtean agertzen da bai eta ere HES TSEZ. Liburu hau Juan San Martin eta Serafin Basarri argitaratzen dute. "Euskal Alfabetatze taldeentzat irakurgai liburua, eragile eragile gaituz hornitua" antologia plazaratzen dute. Urte hau nolabait Deba Arroako Alfabetatzearen fruitua da.

1972an, Eusebio Osaren PEDAGOGIA ETA GIZARTERAKO alfabetatzerako apunte interesgarri batzu zabaltzen dira. Paulo Freire-ren eragina zetorkigun apunte horietatik, baina bait lekutan gogoz eta indartsu sartu zen. Nolabait esan behar da, nahiz eta beste gauza bat izan, Rikardo Arregiaren 1. mailako alfabetatze mailak batera emateko sistema zen. Dena hori garai hartan Gizarte Eskola, Herri Gaztedi eta Alfabetatzearen artean bereizketa zehatz bat egiteari ekin zitzaion. Eusebio Osaren metodoa Euskaltzaindi mailan erabiltzen zen heldu. Jazoera honetan giro sozial-politikoak bazez, zirikuririk.

Aldi honetako textugintza fruitutsuez gainera, Alfabetatze eskoletarako lagungarri batzu ere agertzen dira. 1970. urtean batasunerako idazleen Eibarko zina eta **Batasunaren** hiztegiaren argitaratzea ditugu. Euskara standartzatze modernizatze honek izugarriko garrantzia izango du. Alfabetatze Kanpainetan. 1971.ean hasten da Euskaltzaindiaren luak ematen. Fenomeno honek bultzaturik, irakasleak hobeto prestatzen saiatu zen. Titulu hauek, ez zuten garrantzi aurretiaz alfabetatzerako ematen ziren Irakasle Txartel zeregina. 1971.ean Ibon Sarasola-ren EUSKAL LITERATURAREN HISTORIAK, bigarren maila bateko Alfabetatze irakaslearen eta hitzaldiak ematerakoan, literatura giroa

eta aurrerakoia bat izugarriko arrakasta izan zuen. 1973.eko Udako Euskal Unibertsitatea ere ongarri izan zen.

1973 - 1974 - 1974 - 1975

1971-1975 ikasturteetan Euskaltzaindian ari den Irakasle Talde Bat arduratzen da Bizkaiko Alfabetatzerako textugintzaz. Durangoko taldeak ere antolatzen dituzte beren esperientzien fruitu diren zenbait apunte. Santutxu, Bilboko hauzoz apart eta euskaldunak eraginik sortu ziren bai EUSKALDUNTZEN bai eta ere hainbeste Ariketa eta antzeko ere.

Urte hauetan, euskarazko argitalpenak hobetu eta ugartzean, lagungarri on eta derrigorrezko bat eskaintzen zaio Alfabetatzeari. Alfabetatzaileek berak dira birbizkunde honen kausa, irakurleen basea zabaltzean.

Garai honetan, aurreko haroan egindako metodo eta liburuak ugaldtu eta zabaldtu egiten dira.

1975 - 1976 IKASTURTEA

Aurreko urtean Durango Liburu eta Diskoen Azokan, Bizkaiko Alfabetatzeko irakasle eta eragileek, edozeren gainetik eta batez ere Alfabetatzerako metodo bat eskatzen zuten. Hala 1975.eko udan ALFABETATZEN-1 metodoa argitaratzen da. Arrasateko "LIGA DE EDUCACION Y CULTURA" delakoaren diru laguntza eta taldekoen Alfabetatzerako begiruneak erabateko garrantzia izan zuen. Arrasaten Gipuzkoako Alfabetatzeakoak, Leniz-tik, X. Zubizarreta eta Bizkaiko Irakasle Talde Batek-oak elkartu ginen. Han ginenok "ARREGI TALDEA" deituraz lan egitea erabaki genuen. ALFABETATZEN-1 liburua Bizkaiko taldearen fruitua da. Orain bigarrena eratzen dihardute. Hirugarren liburua, berriz, Gipuzkoako taldearen esku dago.

ALFABETATZEN-1 metodotik 6.000 ale argitaratu da. Bere mamia eta estruktura aurretiki textugintza eta Alfabetatzean aritu izan diranen ondoren bat da. "Metodo mailakatu eta bateratu bat falta delako egin dugu hau". Lehen maila honetan bizitza arrunteko alderdiak ukitzeko asmoa zegoen, euskara oinharritik lantzekotan. Gero bigarren mailarako asmoa, oinharritzko euskaraz jabeturik, euskal kulturaren barrera sartu. Hirugarren mailan bestelako jokabidea hartzea da. Euskal Kultura bera aztertu nahi da.

ALFABETATZEN-1, edozein herritako euskaldunarentzat egina da. Erdaraz irakurtzen nahiz eta idazten jakin, euskaraz bere kulturalan analfabeto direnentzat.

Eskualde ezberdinetako euskaldunek, erdaraz egiten dute maiz elkarren artean. Ulertzen ez direlako hain zuzen. ALFABETAZEN-en, aberastasunak hartuz jokatu arren, euskara batua landu da. Gaur argitaratzen den gehiena batuan datorrelako eta Alfabetatze literario bat Euskal Herri osoan egin ahal izateko. ALFABETATZEN-1 liburuko bizkaierazko formak multikopiaz argitaratu ditugu.

Ez da gramatika bat. Gramatikako gaiak erabiliz azaltzen ditugu. Hori egin badugu, esperientziak horra bultzaturik izan da. Gramatika mailaketa aldetik guztiz ezberdinak dira ALFABETATZEN eta EUSKALDUNTZEN metodoak.

Metodoak berak, helburu bezala euskaraz irakurtzen ikastean jartzen du. Hori jakitean, "Aldizkarietan eta liburuetan mamitzen eta agertzen dira Euskal Kulturaren aurrerapenak" irakurtzeko gai izango da.

Irakurtzen ikasi ondoren, idaztea dator. Hiru mailatan irakasten da idazkera: hitzak banatzen hasi, hitz bakoitzaren ortografia landu eta bere ideiak eta eritziak idazten amaitu.

Textuan zehar, bakoitzaren hiztegi arrunta, aberastu egin nahi da. Hitz komunak daudenean, idazkera bakar bat aukeratu da. Hitz dezberdinen kasuan, sinonimoak landu nahian, euskalki ezberdinetakoak eman ditugu ikastera. Erdarazko edo erdal kutsuko hitzak euskaraz irakasteari ere ekin zaio. Hitz berriak sortzeko giltza bat atzizkiak direnez, erabateko garrantzia eman zaio haik lantzeari.

Irakurgaien barrua aztertzean ez ditugu II eta III Alfabetatzean ahaztu behar. Hirurekin osatzen delako gaien biribilkia. Gaur eguneko bizitzako egoera arruntak aurkezten dira. Irakurgaiak asmatuz, idazle klasiko edo entzunen puzkak hartu gabe. Horren arrazoiak: irakurgaien zehar sartu gura denerako nor berea eginik askotaz moldakorrakoak direlako. Gaien ondoren datozen galderak, ahozko euskalkia landuz eta osatuz, gaia bera sakontzeko ere oso baliosoak dira. Elkar hizketa bidez erantzuteko direnez, elkar hizketa eta ideien komunikabidea lor daiteke.

Ikasgai bakoitzaren azkenean gauza praktikoko batzuek jarri dira. Eskutitz bat nola idatz. Eskela baten erredua. Zenbakien erabilkera eta abar. Eguneroko premia eta hutsune bat bete zeko asmoz.

Irakaslea kontutan harturik, metodoaren erabilkeraz jabetzeko horri txorta bat ere argitaratu da.

Ba dira gaur, liburu, liburuxka, horri, apunte eta abar, Alfabetatze inguruan. Lan oso bat egiterakoan, horik ere aipatu beharko liriateke. Gure asmoa ez da izan Euskaltzaindiko Alfabetatze Kanpainetan egin diren testu garrantzitsuen bidez, metodologia baten ardatza eta giroa erakustea baino.


ALFABETATZE ESKOLETAKO LOKALAK

Metodo bat aztertzerakoan, lekua, laborategiak, magnetofoiak eta beste gauza asko aztertu behar liriateke. Guk ez dugu askorik izan orain arte.

Lokal kontuan, sakristiak, lonjak, Institutuak, eskolak, udalleteak, ikastolak, denetarik izan dugu. Baina, mesedea, faborea eta erregua urteroko gauza eta arazoa izan da. Bizkaiko Alfabetatzea behintzat gehien batean eliz lokaletan eman da. Gure eskerrak horregatik. Ea aurrerantzean berdin eta gehiago den, kontrako arrazoirik ez baitago.



ALFABETATZEA BARRUTIK



ALFABETATZE BULEGOA

Alfabetatze Kanpainen lan historiko hau egiterakoan, erakunde gaia ere ukitu gura dugu.

Alfabetatze Kanpainen nortasuna aurkitzeko Euskaltzaindira jo behar baita. Euskaltzaindiak bere zeregina, bi sailetan banatzen du:

- a) Jagon Saila.
- b) Iker Saila.

Alfabetatzeak bi zereginetatik bat betetzen du: JAGON SAILA. Alfabetatzea, euskara gorde eta zabaltzeko sortu zen.

Pertsona eragile aldetik, Alfabetatzearen sorreran Euskaltzaindi edo inguruko ekintzaileak aurkitzen ditugu. 1966eko Urtarrilaren 28an, Juan San Martinek Iñaki Beobidek, Mikel Lasak eta Rikardo Arregik "Euskal Alfabetizazio kanpaña bat egiteko" proposamendu bat bidaldu zuten Euskaltzaindira. Beraz, hasera haseratik, ikusten dugu Euskaltzaindia sujetu bezala. Eskari hau egin zutenek, ba zekiten Euskaltzaindiaren zereginak zeintzu ziren. Bai eta ere Alfabetatzeaz zer nahi zen ere.

"Eskabidea Euskaltzaindiari JARRAI Taldeak egin zitzaion. Izan ere, garai haietan talde hartan biltzen ginen euskal Alfabetatzearen proposamendua egin genuenok. Geroztik komenigarriagoa azaldu zen JARRAI Taldearen gauza bezala ez egitea, Euskaltzaindiaren gauza denez ez baitzen egokiaz talde berezi baten izena ezartzea", dio Rikardo Arregik 1969an. Hemen ere "...Euskaltzaindiaren gauza denez..." berresaten da.

ALFABETATZE BATZORDEA

Alfabetatzea sortzeko Euskaltzaindiari egindako proposamena onhartu ondoren, Euskaltzaindiak Batzorde bat eratu zuen. "Ordurez geroztik, ba da, Euskaltzaindian Batzorde EUSKALDUNEN ALFABETATZEAREN ardura, duena, bada..." irakur dezakegu 1969ko Rikardoren eskribuetan. Berahala, hara zer datorren erakunde beharrezko honetaz, "...eta Euskaldunen Alfabetatzearen Batzorde honek batzorde bezala ez du bizitza handirik izan".

Dena dela, Euskaltzaindiak bere zereginak betetz, Batzorde hau sortu zuen Alfabetatze Kanpainetarako.

Batzorde honetan, Bizkaitiko Jose Luis Lizundia, Kepa Enbeitia eta Xabier Kintana zeuden. Bizkaiko Alfabetatze Kanpainen sorreran hiru batzordeko euskaltzain laguntzaile hauek gorpuzten dute Alfabetatzea. Jose Luis Lizundia Bilboan, Kepa Enbeitia herrietan eta Xabier Kintana ikerketan lanetan eta irakasleak prestatzen.

Rikardo Arregik eginda utzitako lanekin eta geroztik Bilbo eta Donostian zihardutenen laguntzaz, Euskaltzaindiak Donostian 1972ko Ekainaren 30ean, OINARRI ARAUOK onhartzerantz heldu da. Guk, Alfabetatze kanpainen xedea eta bizikera ulertzeko OINARRI ARAUOK idazten ditugu ondoren. 1972ko EUSKERA XVIIen, honela dio:

EUSKALTZAINDIA

ALFABETATZE BATZORDEAREN OINARRI ARAUAK

Euskaltzaindiak, Donostian, 1972ko Ekainaren 30ean egindako batzarrean onhartuak

1. Alfabetatze Batzordea, Euskaltzaindiaren batzorde tarik bat da, Euskaltzaindiak bere batzar arrunt batean onarturako izendatua.

2. Batzorde honen xedeak, hauek dira: euskeraz irakurtzen eta idazten irakastea. Horrekin batean, euskeraren inguruko gaiak sar daitezke: euskal literatura, euskeraren batzarra, euskeraren geografia eta dialektologia, eta abar. Alfabetatze literarioa, beraz. Bestelako gaiak ez dira Euskaltzaindiaren Alfabetatze Batzordearenak. Zenbaitek beste gairik ere biltzen nahi baldin badu, ezingo du Euskaltzaindiaren eta bere "Euskal Alfabetatzearen" izenik hartu.

3. Alfabetatze Batzordeak hiru sail izango ditu: bi Euskaltzaindikoen artean (gidaritza saila eta bulego saila) eta hirugarrena irakasleen artean osatuak.

4. **Gidaritza Saila.** Sail honek, ahal izatera, Euskaltzaindiaren bost eskualdeetako (Bidasoaz hangoa, Nafarroako, Gipuzkoako, Araba eta Bizkaiko) jendez osatua izan behar du, euskaltzain oso bat lehendakari dela. Idazkari bat izatea ez komeni da. Sail honen zereginak: irakurgaiari kasu egitea, testuei oneritzia ematea eta Euskaltzaindiari batzorrera auzoketza, alfabetatze irakasleen azterketak egitea, ikastaro mahaiburua osatzea, eta antzerakoak.

5. **Bulego Saila.** Saila hau Euskaltzaindiaren Ordezkaritza izateko Bulego idazkariarekin osatua da. Sail honen zereginak: burokrasia arazoan artea izatea. Euskaltzaindiaren eta bere egongo da Alfabetatze Batzordearen artxibo nagusia.

6. **Irakasle Saila.** Sail hau irakasleek beren artean osatzen dute. Eskualdeka idazkari bana izango da, eta idazkari horien artean idazkari nagusi bat egongo da, beren artean hautatua eta Euskaltzaindiak batzarrean onartu beharko duena. Sail honen zereginak: irakasleen arteko har-emanak ulertzea, egindako lanen eta esperientzien berri elkarrizketa irakasle berrien ikastaroak eragitea, erabili behar diren materialak hobetzeko asmoak hartzea, eta abar. Guzti hauen berri "dossier" erara, Euskaltzaindiari, Gidaritza eta Bulego Sailak bidez, eman beharko diote: eskualde bakoitzekoak, haren bereko idazkariak, eta denenak, idazkari nagusiak.

7. Alfabetatze ikastaroak Euskaltzaindiaren gidaritza eta babesaz eratzen dira, tokian tokiko Elkarteren baten laguntzaz. Elkarre horren buruak ikastaroa Arautegi honen arauera egiteko erantzukizuna hartu beharko du.

8. Irakasle Sailean sartuak egongo dira orain arte karnetdun direnak eta hemendik aurrera karnet hori erdietsiko dutenak. Gaur karnetdun direnak beren karnet horiek Euskaltzaindiaren etxera bidaliko dituzte, irakasleen fitxategia osa dadin, bakoitzak ikastaroak non eman dituen eta abar adieraziaz; eta karnet berria hartuko dute, bakoitzari dagokion zenbaki bereziaz hornitua.

9. Ikastaroaren eratzaleek galdeketa bat bete eta Euskaltzaindiko Ordezkaritzaren batera bidali behar dute. Ikastaroa Bizkaitik kanpora egiten bada, bi ale bidaltze hobe, bat gero Ordezkaritzak Euskaltzaindiaren Etxeko artxibo nagusira igor dezan. Aldamenean doa galdeketa honen erredua.

10. Alfabetatze Batzordeak urtean lau batzar egin beharko ditu gutienez. Bat, orokarra: honetan Sail guztietako ordezkariek bakarrik parte hartuko dute. Beste hiruretan, berriz, Gidaritza eta Bulego Sailetako guztiek eta Irakasle Saileko idazkariak (edo honen ordezkoak).

BILBOKO BULEGOA

OINARRI ARAUOK nolabait ulertzeko, gaurko Bizkaiko Alfabetatzearen egitura ikus dezakegu. Jakinik, 1972-73 tik aurrera gutti gora behera, gaurko estrukturaz jokatu dela.

Euskaltzaindiko OINARRI ARAUETAN irakur daitekeenez, Alfabetatze Batzorde honek hiru sail ditu. Gaur egun Gidaritza Sailean hiru osatzen dute: Bulego Sailean: Jose Luis Lizundia eta Juanjo Zearreta. Irakasle Sailean, berriz, era honetara funtzionatzen du:

Bizkaia, 7 eskualdetan banaturik dago: Txorrierri, Busturia, Butroe, Lea-Artibai, Durangaldea, Arratia eta Basauri. Eskualde bakoitzeko arduraduna aurkeztu zen, Durangoko Liburu eta Diskoen Azokan izan zen lehen Alfabetatze Batzordean. Harez gero, aurten, 4 Batzarre egin dira eskualdeetako ordezkariekin, Bulegoko Jon Aurrek zuzendurik. Aurten Batzarreak, gaiak gertatzea, asistentzia etabar profesionalki egiten direla esatera hel gintezke. Eskualdeetako arduradunek ba dute lanik, eskualdean Alfabetatzea egiten duten herriak atenditzeko eta ez den herrietan sortertzeko. Batez ere, aurten datorren jendetza datorrelarik.

Bestalde, Bilboko Bulegoan, Jose Luis Lizundiarekin **Irakasle Talde Bat** izenaz ezagutzen ditugunak arduratu dira Alfabetatzeaz. Talde honek 1972-73ez gero taldekide bat liberatu du, Bizkaia mailan Alfabetatzea eramateko. Liberatze hau egiazkoa izan da, behar diren laguntasunez gainera diruz ere mantendu izan duelako. Une batzutan, liberatuok 3 izatera ere heldu dira. Talde honen esku egon da gehienbat textugintza eta irakasleen prestatzea. Gaur egun talde honek Euskalduntzea (Udako ikastaro eta neguko eskolak) eta Alfabetatzea atenditzen du. Talde honek, guttiago edo gehiago, baina beren gain dituen zereginak honela bana ditzakegu:

Ofizialtasunak, baimenak (Ofizioak), batzarren ardura, propaganda, herrialdeetako informeak jasotzea, gramatika txutak eta ariketak lantzea, irakurgaiak egin, aukeratu eta prestatzea, hizlariak eta gaiak gertatzea, pedagogia, beste Euskal Herriko eskualdeetakoekin harremanak edukitzea, euskaldun berrientzako baserriak aurkitzea, kantsultak egitera datorren jendetza atenditzea, etabar.

Alfabetatze arloan, herriren batean alfabetatzerik ez badago, eta eskualdekoak heldu ezin badira, Alfabetatzeko arduraduna joaten da hara.

Historia begiratuz gero, bulegoa arduratu da Euskaltzaindiaren alfabetzeari dagokion izaera eta urtean zehar ekarri duen lotura emateko.

Beti egon da guran ikerketa baino zabalkunde zereginaren ardura Hor dautza, EUSKALDUNTZEN-1, 2, 3, ALFABETATZEN-1, 2, Ariketa liburua eta Hiztegia argitaratzea. Era berean ulertu ditugu hitzaldiak. Historia, Literatura, Geografia, Bertsolaritza, herriratzea, ezagutza ematea da gure asmoa. Beraz, "jakintsuak" eskuratu eta berritutako gauzak zabaltzea.

Bulego honetan nahiko buruhausterik izan da eskualde batzutarako, urtean zehar 8 bat hitzaldi antolatzeke. Ibili ez denak ez daki zer buruko min ematen duen horrek. Gaur egun, zorionez, bada hizlari koadro osotu eta konprometatu bat eskariak atenditzeko. Beti bezala, lan hau ere gutti batzuringana jausten da: J. R. Etxebarria, S. Kintana, I. Berriatua, J. Lopategi, J. I. Intxaurrea, X. Mendiguren, E. Gerrikagoitia, B. Kapanaga, eta beste zenbaitek ez dute neke gutti izan.

Aurrera begira, Bulego honetan, euskara zabaltzen segituz, eta bere zereginetara loturik, hurrengo pausua ikusentzuteke teknikak eta hauk beste Alfabetatzera eta euskarzko eskoletara egokitzea izango da.

Beti ere berezituz Alfabetazen eta Euskalduntzen-en arteko metodo berezitasuna. Ba gabilza idazle eskola bat sortzen...

Aurreko guttia ikusi ondoren, bulegoaren lana funtsezkoa da. Hainbeste urtetan ekin ondoren, gure epe laburreko plana, zaletasunez hain gogotsu egin den lana, profesional modura hedatzea da. Era honetan jokaturik askatu gura dugu herria, eta honela jokatuz gertu egon, askatzen denerako.

HITZALDIK-OZAGARRI

Gure Alfabetatze eskoletako metodoa azaltzean, hitzaldiek izan duten garrantzia jabetu beharra dago. Euskaltzaindiko OINARRI ARAUAK beteaz, "horrekin batean, euskararen inguruko gaiak sar daitezke: euskal literatura, euskararen batasuna, euskararen geografia eta dialektologia, eta abar eskolako metodoaren barruan gai batzuk azaldu dira hitzaldi bidez".

Hona hemen gaiak:

- Euskara nola bultza gaur egun.
- Ikastolak.
- Euskal liburugintza.
- Euskara Batua eta Euskalkiak.
- Euskal Historia.
- Euskara Teknikoa.
- Kutsadura.
- Ipar Euskal Herria eta Euskara.
- Euskal Geografia.
- Euskal Literatura.
- Bertsolaritza.
- Alfabetatzea zer den.
- Euskal Liburuak eta Aldizkariak Euskal Herrian.

Literatura, Historia, Geografia eta Euskara bera izan dira Alfabetatzeko gehienbetekeo gaiak.

Beraz, Euskaltzaindiaren arauak kontutan hartuz Alfabetatze Literario oso bat egiteko.

Patxi Elgelabal
Juan Luis Goikoetxea
Jon Aurre

GURE HERRIA EUSKALDUNDUZ ALFABETATUZ JOAN ALA

"Inperioaren hizkuntzan mintza zaitez" agintzen ziguten garai batetan. " Bizkaiaren auzo ikastola " letreroa puxkatu zuten zintzel kolpez erdaraz ez zekiten gure herrietako agintariek, goikoen guraria beteaz.

Dirudienez egun zakar eta latz haik joan ziren. Egundun bilinguismoaz dihardugu, batzuk lehengo astakeriak estaldu nahiaz, beste batzuk oportunitate-rik nabarmenenaz, eta azken batetan zinetako euskaldunak transitu bezala, inperioaren hizkuntzatik, herri mintzorako bidean. Ba dira, behintzat hiru jokabide, izen berarekin.

Lehen bidekoak

Lehengo zintzeldunak, berberak, egun, azken dekretu bien izenean, urrats koxkor eta eskas batzu bilinguismoaren panazeatzat pasatu nahian. Eta guti balitz bezala, euskararen administrazioa hartzeko prest daude, txarrago dena, lehen urratsak emanak dituzte.

Bilboko kazetari adiskide batek autu honetaz mintzatzen gaudela, hauxe ezan zidan: " Ez dira bat ere aldatu alboko kalean, herriarentzat baina herriarekin gabe ". " Despotismo ilustratuaren garaian gaude orduan " erantzun nion.

Ez da kable bat hau, ez. Euskarari buruz erabakiak hartu, euskara administratu, Euskaltzaindiarekin kontatu gabe, euskal irakasle eta andereñoekin kontatu gabe, ikastolarik ez balego bezala.

Bigarren bidekoak

Hauek ez dute zintzelik eskuetan hartu. Gertatu dena ikusiz eta bista gehiagorekin jokatzen dute. Euskal baloreen indarra ezagutu dute, politikari abilaik dira, bere errentagarritasunari atxeman dute, dibidendu onak ateratzen hasiak dira.

" Bilinguismoa nibel guztietan " oihukatuz, erroteria indar hidraulikoaren balioaz kargutzen den bezala, euskara bere andaparara, bere ubidera eramaten ahalenginduko da.

Bai egia da, baina horrek ez du kentzen azterketa sakon bat egitea, fenomeno hau nolabait gertatzen baita. Ez diogu borondate txarrik inorri bota nahi, hau ez baita kasua. Erreflexio sakon bat egitea positiboagoa da.

Euskalgintza lana, azken batez, eguneroko, astero, urtero neketsu eta etengabe egiten den zerbitzu da, ez da beraz "Agitprop" kanpainen eginkizuna; ezin da beraz zenbait kontraesan nabarmenegi-tan eror, jendea konturatu egiten baita. Gertakizun bat bakarrik ekarriko du gure herri batetan gertatua:

"Oraindik euskara irakasten al diharduk? Ez du superatu hori?". Handik bi hilabetera hori esan zuten berbera bertsolari jaialdi bat antolatzen, eta ke.

Tarteko bide batzutakoak

Tartean ba dira beste bide batzutakoak, baina ki: euskara maite dutenak, baina bide erdian, maitasun erromantiko batetan, euskara ikasi gabe, euskerdi ikasita gelditzen direnak.

Lehengo garai bateko euskaltzaleak dira gehienak. Euskara bere osotasunean, gure Herriaren ondorendoren ondore bezala, ez dute haiek hartzen, ez dute oraino jabetu euskal hizkuntza nazional baten baten netako beharraz. Euskara sinbolo hutstzak daukate soilik.

Hirugarren bidean

Hirugarren bideak, gurrupide bi ditu, gure mundu erdalduna euskalduntzea, eta gure mundu euskalduna alfabetatzea.

Ezin daiteke erdaraz euskal mundurik egitea ez eta euskalduna erdaraz alfabetatu. Hau gauza bera dela esango digu norbaitek, baina ez dakigu hainbeste den, zeren oraindik irauten baitute zenbait argitaldarik erdaraz beren emaitza guztia kaintzen, idazleek erdaraz parra parra, eta Bizkai herri nagustu baten alfabetatze moduko bat erdaraz egiten, kanpotik etorritakoen integratzea atzeratu ki hartuta.

Programaketa ikaragarri bat eskatzen du gure Herriaren euskalduntzeak, Ministergo oso bat adre nakoak, Euskararen lurralde eremuetan goitiki behar ra sartu zen gaztelaniaztapen eta frantximentapen izugarria gainditu, eta galduak oraintsu edo aspaz dituen lurraldeen berreuskalduntzea: Enkartzioak Araba gehiena, Nafarroako atzerakada ikaragarria eta beste. Alfabetatzeak ez guttiago. Ikastolak bere aldetik eta J.A. Retolatzaren lan miresgarria beste itik ahalegin handiak dira, baina medio eskasiagatik laburrak. Alfabetatze batzordeek ba dihardute beren lanean hainbat eskualdeetan, toki eskasiaz zenbaiten " maccarthysmoaren " trabekin, hizlari faltaz, diru laguntzarik ezaz.

Talde eta herri gizonak alfabetatze bidean

Alfabetatzeak ere, Ministergo bat eskatzen ezin badu ere, Zuzendaritza Nagusi bat bai, guttienez Horretaz konturatu beharko lukete zenbait talde taldekkak, herri gizonak eta herri gizontxok.

Euskara herri baten ondasuna dela, eta herri osoarena gainera, eta hain zuzen horrexegatik ez du nahi ondasun hori talde baten eskuetan erort dadin. (. . .) Beste gauza bat eurrez eta maila orotatik (bai eta erlijio eta pastoral mailetan ere) zabaltzen dute Euskaltzaindiaren batasun bidearekin atxeman nahi dizkiotenenek: bide hori ateoena dela, edo erlijio gabeena. . . Azken kontzilioak bere arretatik gurtia ipini du erlijioaren hauzia bestelako arretaz ere katigatu ager ez dadin. . . ". Pasarte hau euskara aldizkaritik jasoak ditugu. Hor erlijioaz esaten dena, politikaz ere esan daiteke, edo eta bialdun batera, integrismo berri batzuri buruz.

Uste dugu horren arauera jokatzeko eskatzea ez zaiela gehiegitxo irudituko zenbait taldek eta herri gizon edo gizontxori. Erraztasunen beharrea dagoen ekintzari trabak jartzea, manipulazioak egitea ez da zilegi, eta noizbait, Herria konturatzen denean, NAHIKOA esango du.

Eta hemen elizgizon konkretu eta ezagun batzuek ere sartzen ditugu. Eliza beren ideologia nahiko jakinaren zerbitzuan jartzen dute, eta beren karguekin baliatuz, Elizarekin zerbitzatzeko dira, azken batez. Zortzigarren aginduaren berri ez ote dakite ba? Karitate eta justizia gehitxoago, eta "euskaldun fededun" arazoa administratzen dute, batzuk bedeinkatuz eta besteak deskomikatuz beren zereginetan. Euskal eliza bat egiten zergatik ez dira saiatzen, hizkuntz lanean espezializatzen direnak errespetatuz? Ba dute hor aski lan! Esate baterako, ANAITASUNA (307-308. zenb.) "10 urte euskal Elizan" alean aipatzen diren beharrezanetan murgilduz, zeren abilezia eta jakituria behintzat, ez dute falta.

Talde eta taldeño batzuek, aldiz, euskara Euskal Herri osoarena dela jabetzen dira, eta alfabetatze eta beste euskalgintza lanak errespetatzen ba dakite. Hori da bakoitzaren hesparrua, kanpoa zein den jakitea! Batasuna eskatzen dute zenbaitek eus-

kal munduan, baino horretarako, lehen ere esan nuen bezala, herri tregoa bat behar da.

Herri gizonak alfabetatzen

Egungo egunean eta egoeran, Euskal Herrian beharrezko bihurtu behar da euskararen eta beraren kulturaren "lizentziatu" izatea, benetako herri gizon izateko. Honekin zera adierazi nahi dut, euskaldungoan — eta euskara gabeko euskaldungorik ez da —, euskal politik alorrean, ezin dela inor herri gizontzat plazaratu, holako baldintzat betetzeke, maiz eta zoritxarrez gertatzen zaigun bezala.

Nahiz eta bakoitzaren espezializapenak, lege kontuan, ekonomi alorrean, soziologi sailean edo eta diplomazi gailurretan garrantzi haundikoak izan, hori jakiteaz gainera, edo hobeto esan, horrez gainera eta ez bestetara, euskal alfabetatuak eta bakoitzari dagokion mailako euskal kulturaz hornituak izatea, eska daiteken guttierna da.

Eta ez lantegiko langile soil edo arrantzale baten neurri berean, hauk izaten baitira, zoritxarrez, alfabetatze ikastaroetara joaten diren bakarretakoak, baizik eta maila handiago batez, hots, euskal herri-gizon izateko, "alfabetatze diplomatura" gisakorik beharko lukete anitzek.

J. L. Lizundia



Literatur fitxa

irten berriak

LIBURU BERRIAK

- *El primer nacionalismo vasco, de JUAN JOSE SOLOZABAL.* — 360 Ptas.
- *La crisis del antiguo régimen en Guipúzcoa, 1.766-1833: Cambio económico e historia de Pablo Fernández Albadalejo.* — 400 Ptas.
- *Euskaldun Berriekin Euskaraz, de Xabier Kintana y Joseba Tobar.* — 200 Ptas.
- *Influencias del vascuence en la lengua castellana (a través de un estudio del elemento vasco en el habla coloquial del Goierri-Gran Bilbao), de MIKEL ZARATE.* — 420 Ptas.
- *Etnología vasca, de Telesforo de ARANZADI.* — 160 Ptas.

LIBURURIK SALDUENA

- *Hablando con Chillida, escultor vasco, de Martín de Ugalde* 250 Ptas.

GALERIA DEL LIBRO LIBURUDENDA EUSKAL LIBURUAK
Ercilla, 35 | tel. 4438399 - BILBO 11

Hasera-haseratik ohar nagusi batzu egin beharrea aurkitzen naiz, hots: Araba Gasteiz dela, Arabaz ari garenean Gasteizera zuzentzan ditugula gure begiak. Euskal alfabetatzeari gagozkiola ere, Arabako alfabetatze eta batez ere euskalduntzea Gasteizera mugatzen da, oraingoz behintzat.

Arabaren ezer gutti egiten da eta egin daiteke alfabetatze mailan. Hemengo arazoa ia osoki, EUSKALDUNTZEA da.

Egia esan, ezer gutti jaso ditut audio eta Amurrio inguruetako berriak. Artikulu honetan beraz, Gasteizko euskalduntzeaz ari naiz soilki baina lehenbizi Agurain inguruan sortu den euskal giroari gainbegirada azkar bat bederen ematea beharrezkoa iruditzen zait. Ba dirudi hemen ere euskalzaletasuna beren lehen fruituak ematen hasi dela.

AGURAIN

Hemen bertoko guraso euskaltzaleek hala hola-ko ikastola bat jaso dute. 28 haur biltzen dituela jakin dugu, eta bi andereñoen esku dago haur hauek ardurak. Leku berean hasi da gazte eta nagusien euskalduntzea ere. 35 bat guraso eta gazte ari omen euskara ikasten.

GASTEIZ

Historia, labur.

Duela hamer urte ipin dezakegu Gasteizko, euskalduntze giroaren hasera. Han hemenka eta bakarka ari ziren pertsonak alde batetara utzirik, lehen talde organizatu bezala Latorandar fraidegaiak agertzen dira (aski ezagunak ditugu arlo honetan E. Osa eta bere lankideak). Talde honek duela hiru bat urte 30 bat irakasle biltzea eta elkarlanean ipintzea lortu zuen eta 300 bat ikasle euskararen bidetik abiaerazi. Orduetik eta beti ere irakasle talde honen inguruan mugitu direla uste dute Gasteizko gau eskolak.

Gaur eta hemendik begiraturik, ez talde hark eta ez besteak ez zuen inolako planteamendurik ez planifikaziorik. Euskara irakasteaz aski genuen orduan. Nori irakatsi, non propaganda egin, zeintzu aukeratu eta antzerako galderarik ez zen egiten, ez zen beharrik ikusten. Kultur elkarte, klub eta antzekoetan propaganda pixka bat egin, jende multzo bat bildu eta segi aurrera!

Arazo honetan "M. Iradier" Elkarteak eskaini digun lege babesa eskertzekoa izan dela aitortu behar dut. EUSKALTZAINDIA ordezkariak ere garai batetan bere laguntza eta lege-babesa eskaini zuen. Azken urteotan bakoitza bere aldetik ibili dela ikusten dugu eta hau guztion kaltetan izan dela, noski. Berritoki ere begi onez ikusiko genuke Euskal Akademiaren Ordezkaritza honen laguntza eta gidaritzaren ere.

GAUR EGUNEKO TALDEAK

Gaur egun ba dugu Gasteizen zehar zenbait talde eta zentru euskalgintzan gogor samar ari dena, Oraindik ere elkarren artean lotura handirik gabe ari dira lanean talde hauek. Hona hemen talde bakoitzaren zenbait datu eta zehazkizun:

A. Olabide IKASTOLA

Hemengo gau eskolak ikastolako haurren gurasei zuzenduak daude. 7 bat irakasle ari di-

ra 75 bat ikaslerekin. Euskara batuan ematen dira klaseak, P. Altunaren metodoaz baliatuz.

B. EUSKERAZALEAK

Oraintsu antolatu berria den talde honek bere legezatztea laster lortuko duela entzun dugu. Aurten 5 bat irakasle ari dira 50 bat ikaslerekin. Metodoa, J. Oñatibia jaunarena. Talde honek ez du oraingoz Gasteizen euskara batuan irakasten, gipuzkera baizik.

C. TEKNIK ESKOLAK

Arrakasta handia lortu omen du aurten Profesio-eskola hauetan egin den deiak. 80 bat irakasle ari dira larunbat goizez euskara ikasteko asmoz. Euskara batuan ari dira eta "M. Iradier" elkartearen irakasle Taldearen metodoa erabilite.

D. "M. IRADIER" ELKARTEKO IRAKASLE TALDEA

Hau izanen dugu, segur aski talderik handiena eta organizatuena. 20 bat irakasle osatzen du talde hau eta antolamendu egoki batean ari da lanean:

- Diru-kaxa bakarra, matrikula guztiak biltzen dituen.
- Diruzain bat.
- Idazkari bat.
- Ikasleen fitxategi bat.

300 bat ikasle ditu bere klaseetan zehar bat nandurik. Euskara batua irakasten du eta jakin dudanez, talde hau bere metodo berezi bat prestatzen ari da. Talde hau ere bere egoera laster legezatzeko asmotan dabil.

ASMOAK

Oraindainoko egoera ez dugu horren kontu lagarria: irakasleen taldeak bakoitza bere aldetik dabilta; ez dugu elkarlanik batere egin orain arte. Irakasle taldeak ere oso sakabanaturik daude Gasteizen zehar. Anarkia hutsa dirudi honek.

Bainan oro har, fruiturik ere lortu dela ikusten dugu klase hauetan. Zenbait irakasle euskara nahiko ondo menderatzea lortu du. Datu jakin bat: "M. Iradier" Elkartearen irakasle Taldearen euskaldun berriak dira. Bejondizuela!

Ba dirudi geroak bide hobea eramanen duela baina horretarako gure ahaleginak elkartu egin behar ditugu. Nik hiru puntutara lotuko nituzte gure asmoak:

- a) Irakasle talde guztion koordinatzea; elkar laguntza bultzatu behar dugu guztion onerako.
- b) Gure klaseak eta propaganda, neurri handi batetan behintzat, maisuengana zuzendu behar genituzke. Euskararen etorkizuna eskolarik irakasten dugu. Bestela gureak egin du. Maisu-maistrak euskaldundu behar ditugu!
- c) EUSKALTZAINDIAK gida lezakeela uste dugu Gasteizko irakasle taldeen elkarlan hau.

OHARRA:

Aipamen berezi bat merezi du Peli Presa jaunak, Gasteizko irakaslerik zaharrenak. Aspalditik ari da bakar bakarrik euskararen sustatzearen etsi gabe indartzen Gasteizko hiri honetan. Hona maika ikasle igaro da bere eskuetatik eta oraindik ere gogor dirau zeregin honetan.

JUAN...

Jadanik

**150 bulego ditugu prest zuretzat
eta, gainera, 50 zerbitzu ezberdin
baino gehiago, guztiok zuri
eskaintzeko.**

**Baina, hala ere, gehiago jaso nahi ditugu
Eta lortuko ditugu.**



**CAJA DE AHORROS
VIZCAINA**

Hemen irabazi guztiak zuretzat dira

ALFABETATZE KANPAINAK GIPUZKOAN



Historia piska bat

Gipuzkoan behinik behin alfabetatze mugimendu egituratu eta bateratu baten abiada ez da oso zaharra. Halarik ere, 1967.an edo, jadanik ba zen mugimendu horren lehen urratsik Rikardo Arregiren inguruan zebiltzanen bitartez. Gero hura hil da, — oker ez banago 1969.an izan zela uste dut —, Arrasateko bilkura eztabaidatsu baten ondotik mugimendu haren abiadurak makur egin zuen.

Nolanahi ere den, Gipuzkoan alfabetatze ihardunak harrez gero ere betidanik izan du nolabait bere lekua: leku apala noski. Talderen bat edo beste ia beti egoten zen herri nagusi gehientsutan.

Harrez gero, gipuzkoar alfabetatzaileen kontua bat bera zen denen gogoan: ez zegoela elkarlan hertsirik eta nor beraren bakartadeari zerion alde gaiztoarekin aurkitzen zela. Beste arlotan bezalatsu, beraz, hemen ere gure lankidea bakartatea genuen eta honi atxikirik doakion kemen gabezia geunden egoeratik ateratzeko. Gainera giro hori, esan beharra dago, urtez urte are eta nabarmenago agiri zitzaigula: urtez urte ugalduz joan baita talde tiki eta sakabanatuen lana baztar orotan. Kultur lan horretan zihardutenak zenbait eta gehiago izan, orduan eta gorriago hautematen genuen mugimendu bateratu batean premia.

Batasunak indarberritu egiten gaitu, dakigunez. Baina hori bakarrik ez; baztar batean eta bestean lan honi ekin dion langile bakartia poztu, zuzpertz eta zentru berri baten jabe bihurtu da. Artean, ez zekien zihur zer ondorio eta emaitza ukan lezakeen bere ahalegin asegaitzak, bestetan zer eta nola egiten den ia ez dakielarik. Edozein ekintzetan bezala, ahalik eta hedadura zabalen bat lortu nahi genuen, alfabetakuntzari zentzu serio eta baliotsu bat ematen zitzaiola ikusterazteko, era honetan alfabetatzailearengan gogo-zuzperraldi bat erdietsi nahi izanik.

1974. Udako Euskal Unibertsitatea

Momentu hau, dudarik gabe, biziki eraginkor eta garrantzitsua da gipuzkoar alfabetatzaileontzat. Elkarlan bateratu baten urrats neketsuan, esango genuke, une hauxe dela hastapenaren oinharri. Bildu ere, han bildu baikin gipuzkoar alfabetatzaile batzu alde honetatik zerbait egiteko asmoz. Ezin da ahantzi egungo egoerak asko zor diola Xabier Zubizarreta bat bezalatsu beste zenbait lankide ausartiri.

Egia da, han bildu ginenok ez genuela erabiltzeko etorkizunaren norabidea eta baldintza orokorratikoz finkaturik utzi. Hastapen orotan egiten dena egin genuen: arazoa planteaturik nolabaiteko irtenbide bati zegozkion proposamenak agertarazi. Urtur bur esanda, puntuotan zetzan:

a).- Gipuzkoar alfabetatzaileok ezagutu eta ez gara zinez ezagutzen: hona hemen bakartatearen lehen azterna. Eta horrela, jakina, ez goaz inoiz noraezean murgiltzera izan ezik. Guztion kultur burruka bat bera denez, bistan da, lehen lehen lortu behar dugun baldintza zera da: kultur ekintza hau bateratu lezakeen egitura dinamiko bat.

b).- Egitura dinamiko horri esker, bigarren behaztopari gain hartu zekiok: irakasle gabezia, errenari, halegia. Izan ere, maiz asko, herri anitzetan ez zegoen irakasle talderik, edo bat bera ere ez. Halakoetan zerbait egin nahi izan denean, beste batera jo dute irakasle eske. Herri mailako irakasle namikarik ez zegoen (eta ez dago egun ere hainbatetan) kultur maila honetan. Baina okerrean ez zen hori: modu horretan jokatzekoa zen bitartean zegoen inolako irtenbiderik. Irakasle berriak sortu behar dira nonnahi, baina hau ezin da lortu herri mailan jokatuaz; bailera mailako plagintza eskatzen du lehenik eta Probintzia mailakoa ondoren.

c).- Gure koordinaketaren barne irakasle ez zirenen arazoaz gainera, bigarren alde nagusi bat material, testu eta metodologiaren baitarik zetorren Gau eskolako irakasleak, hain zuzen, sarriren langile eta ikasle baitira (inoiz andereño eta ikasleak, irakasle ere bai, baina gutienetan), eta euskara nola edo hala menderatuaz, besterik gabe euskararen irakasteari lotzen zaizkio. Eskerretan beraz, lanerako dagoen enpeinu ausartari lotzen zaizkio. Bestalde, puntu honi dagokionez, orain arte ez dugu ezagutu alfabetatze mailako metodologia burutu bat. Alde honetatik, erabiltzeki genuen, herriz herri nolabait eskeini behar zitzaola erantzunen bat edo beste.

Guzei horrek gaitz bihurtzen zuen (eta du) euskararen irakaskuntza serio bat burutzea; zere euskara jakitea ez baita aski hori bera tajuz irakasteko. Irakasle ez zireni gehiagi gabiltza edozein testu hartu eta nolanahi euskararen barne legeak aurrera irakasteko. Baina ez dago den dena, ezta guttiagorik ere, irakaslearen esku. Irakaslearen beren aldean deus jartzen ez badu, gureak egin du. Irakaslearen baten euskarareriko gogo bat, kezka bat, ardura bat, erretzen ez badugu, pikutura joan besterik ez dute irakasle prestu eta metodo egoki orok. Metodologia egoki eta irakasle gaituak ezinbesteko dira noski, ez haatik aski. Esango nuke, Euskal Herrian gehien goa sekula ez dela euskaldunduko, aldiz kultur burruka gogor bat bere inplikazio ideologiko guztietekin abiada erazten ez duguino.

Arrasateko bilkura

Donibane Lohitzunen eman zitzaion bultzadarekin, 1975.go otsailean Arrasaten bildu ginen berrogeiren bat irakasle. Esan dezakegu, GAU ESKOLEN ELKARTEA orduantxe hasi zela benetako oinharri bat bereganatzen. Bitartean Donibanen

izan ginenon egitekoa herriz herri elkarte horren premiaz oharteraztea izan baitzen batik-bat. Biderik neketsuena tarte hori izan zen; ez baita, gezurra badirudi ere, gure artean zenbaitekin elkarlan bat aintzina ematea batera erraza. Halaz ere, gauza bat mila aldiz edo bi mila aldiz esanik, konfidantza bat sortu ahal izan zen guztion artean. Harreman hauetan, nola ez, ideologia kontua izan zen gehien eragotzi zuena. Elkarte hori abertzalea izango ote? Nor ote dago horren atzetik? Galdera hauetan datza errezeluaren mamia; bestalde, guk justifikatua jotzen genuen errezelu hori gure Herriko ideologien itsaso nahasi-mahasian.

Aipatu den Arrasateko bilkura hartan, lehenik, Gipuzkoa osoa zortzi ballaratan banatzea pentsatu zen: Lenitz, Eibarraidea, Urola-Kosta, Urola-Garaia, Goiherri, Tolosaldea, Donostialdea eta Erreterialdea. Honen ondotik bailera bakoitzari zegokion arduradun bat hautatu eta aldiz beste erabakiok hartu:

- Batzordeak erdi liberatu bat hautatu behar lehenbailehen.
- Gau eskolen mugimenduan noizean behin aldizkari bat edo (Euskarri) atera behar da irakasleen adierazpide gisa.
- Irakasleen prestakuntzarako ikastaro batzu eratu behar dira sistematikoki eta urtero.
- Kanpainaren buruan mintegi batzuk antolatatu hizkuntz eta kultur gaien inguruan ikasle-irakasle-tzat.
- Material eta testu aldetik informazio eta zabalkunde bideak ezar.

EUSKARAZ IRAKURTZEN ETA IDAZTEN DAKITENEN ZIFRAK.

Alfabetatze mugimenduaz mintzo garelarik, eta nahiz eta honen premia begien bistan egon, zifra batzuk aipa ditzagun. 1974. ean " Gipuzkoako Gurasoen Elkarte Katolikoak " eginiko inkesta baten zenbakiok azaltzen zaizkigu euskaraz irakurtzen eta idazten dakitenei buruz:

- Hitz egiten eta idazten Gipuzkoan orotara 15ek daki.
- Hitz egiten bai baina idazten ez dakitenak 24 dira.
- Nolabait, eragozpen handiekin, hitzegiten dutenak 8 dira.

Beraz, Gipuzkoan, eta kontuan hartu eskualde hauxe dela denetan euskaldunena, 15ek baizik ez daki euskaraz idazten. Eta, egia esan, nik neronek zalantzan jarriko nuke datu hori. Idatzi bai agian, baina zertaz eta nola? Ene amak ere idazten du esaldiren bat enkargun bat utzi nahi didanean; ordea, ezin du bere pentsamendua luzaz adierazi paperean; " Cambio 16 " errazago irakurtzen omen du " Zeruko Argia " baino, eta hori, gaztelaniaz ikasten orain ari delarik.

Datu horietan oinharriturik, bistan da, ideia, asmo eta ekintzak komunikabide gisa euskara erabiliaz, guzti horretaz jakinean gainean daudenak gutiengo murriz bat gara. Euskaldun batasunik eza alde honetatik ere eragotzirik dago, komunikabide horretan gehiengo sartzan ez delako Hizkuntz harresi bat dugu Euskal Herrian bizi garenon

artean, eta harresi hori giza jokabidearen beste mailatan ere isladatu eta errotu egiten da elkar ezagutzen ez dugularik eta egoera misterioitsu bat sortuaz.

Lehenik, euskaraz mintzo den gizataldea bera ere pentsamendu eta kultur prozesuetan partaide ez delarik, hein handi batean behintzat, alfabetatze mugimendua hor erabat errotu beharra dago. Aldi berean, halaber, euskaldun berrien ugaltza ez doa aparte eta prozesu horretan sartzen da. Euskal liburugintza eta aldizkarigintzaren aurrealdintza, halaber, kultur maila hontan kokatzen da, eta dagoen egoeratik indarberrituaz behar dituen lanbaber eta laguntzarik gabe, gure kultur ahalegina talde murriz baten bikaina, baina, etsigarria, izanen da.

1975-1976.KO KANPAINA

A. Orain arte egin dena.

Iraillean hasi ginenez gero, ondorengo bi hilabetetan ikastaro batzu eratu dira baikeraz bailera Lehen esan dugunaren arauera, irakasle aritz dabil, besterik ezean, sartu eta euskara irakasten ari dena. Ahalmen baino enpeinu hobeagorekin, alegia. Ikastaro horietan, hori horrela, ez da gauza handirik eman goi maila batetan. Zeren, zeuden behar jakin eta konkretu batzuetan oinharritu ditugu eta bai metodologia eta bai gramatikari zegokionez, oinharri oinharriko zenbait arau eta erregela besterik ez da jorratu horren zehar.

Ikastaro horik zortzi bailaran egin direlarik, bertatik pasa diren irakasle kopurua zenbaki hauetan datza:

- Lehen maila batean 127 irakasle, eta
- Bigarren mailan 60 irakasle beraz,
- Orotara 187 irakasle.

Ikastaro horietan testu eta metodologiari dagokionez, modu honetara jokatu da:

- Lehen mailan, hau da, euskaldun berriei hastapenetik irakatsiko zieten irakasle haiekin, testuok landu dira: Euskalduntzen - 1 eta Euskalduntzen - 2.
- Eta bigarren mailan, aldiz: Alfabetatzen - 1.

Honen ondorioz ekin zitzaion neguko kanpainari: irakasleekikoa nolazpait egin ondoren, alegia. Esan dezagun, halaber, aurtengo kanpaina hau ez dela osoro abidan oraino jarri. Adibidez: Zarautz, Getaria, Zumaia, Hernani, Azpeiti, Azkoiti, Deba, Alzuola eta beste zenbait herrialdetan ez zaio hastapenik eman. Kosta eta Urola bailera osoa dago asi gabe. Toki horietan, uste dugunez, berehala emango zaio hasiera; urtarrilean agian.

Bestetan jadanik hasia denez, eman dezagun zenbait datu eta xehetasun, Antolamendu hauetan ez da soilik alfabetatze maila barneda goena, aitzina, aitzitik, beste bi ere tartean dira. Hala nola, ba:

- 1.- Lehen maila, euskaraz deus jakin gabe hasi direnekin.
- 2.- Bigarren maila, zertxobait zekitenekin, eta
- 3.- Hirugarren maila, edo alfabetatzea, mintzatzan dakitenekin.

Oraingoz hainbeste ikasle dabilta mailaz maila

Gipuzkoan zehar.

1.— Lehen maila	1.520	ikasle
2.— Bigarren maila	720	"
3.— Alfabetatzea	600	"

orotara 2.910 ikasle

Irakasleei bagagozkie, berriz:

1.— Lehen maila	142	irakasle
2.— Bigarren maila	71	"
3.— Alfabetatzea	43	"

orotara 256 irakasle

Ez dezala inor pentsa Gipuzkoa osoan jende hau baizik ez dabilenik, dabilena askoz gehiago baita. Zenbakiok gure koordinaketan barne sartzen direnak dituzu eta bestelakorik eurrez da; hots, sartzen ez denik. EUTG eta gero taldeak sakabanaturik diren taldeak nonnahi baitaude. Beneran gaitza deritzat, hainbeste talde oraindik ere sakabanatuta egonik, zehatz-mehatz jakiteari zenbat ikasle-irakasle izan litezkeen orotara Gipuzkoan dihardutenak.

B. Gerora begira

Gau eskolen mugimendua, oro har, horrela da goelarik, gerora begira gure asmoak pitin bat azal ditzagun. Asmo horietatik nagusiena honetan datza: mintegietan, alegia, GAU ESKOLEN ELKARTEA sortu zenean bertan, garbi ikusten zen, besteak beste, sail honi gure begirunerik oparoena eskeini behar geniola.

Mintegien (hitzaldiak berez aski, hotz dira sarri eta nahiago izan dugu mintegi izena erabili, izana gero ikusi behar) saioei nahi zaie heldu eta jadanik ere hasiak gara horretan. Euskaraz ikasten hasi direnentzako (erdaraz noski) gehienbat gaiok erabiltzen ditugu:

— Euskararen beharra euskal komunitatea berreskura dezagun.

— Bilinguismoaz.

— Diglosiaz.

— Euskarak erdal eskolan sartzeko duen oztopoa eta abar.

Mintegion jomuga, hemen nonbait esan duguenez, euskararekiko ardura eta kezka bizi bat erdies-tean datza. Horretarako, ezinbestekoa dela deritzagu, arazo horren planteamendu serio eta funtsatu bat egitea, baina ez euskal gauzekiko jarrera sentimental huts, puts eta ondorio praktikorik ez duen bihotzbera antzuan. Gai hau, besteak beste, Jon Urrujulegik landu izan ohi du eta bera, sarri esan ohi duenez, ondorio positiborik izan ez duen bihotz jarreraren arerio purrukatua da; neu ere bai noski. Atarian bagaude ere, jarrera errazional hain dira soil soilik, jakintza maila sakon batean planteaturik euskara eta Euskal Herria dagoen dagonetik atera dezaketanak.

Beste alde batetik, alfabetakuntzan diharduten ikasle-irakasleekin (euskaraz, alegia), beste gai honetara jotzen dugu:

— Euskal kazetaritza eta liburugintza

— Euskara batua

— Euskal historia

— Textu azterketa bat nola egin eta abar.

Hots, alfabetatu hala euskal kultur gai batzua hausnartu nahi dira. Hain zuzen ere, ez da uste, besterik gabe, hizkuntza bera nolabait menderatzearekin kultur mugimenduan buru-belarri sar litekeenik. Hor sartu eta burrukatuko bada, Euskal Herriak bizi dituen gorabeheren ikuspegi kritiko bat aurrebaldintza bat da. Mintegion jomuga, hor-taz, euskaraz alfabetatu eta euskal kultur hauzi eta arazoetaz hitzun bihurtzea da. Hau da; euskara menderatu euskaraz irakurri eta idatz dezan; eta hitzun bihurtu euskaraz zer idatz eta esanik ukan dezan.

Joxe M. Odriozola

ALFABETATUENTZAKO "RIKARDO ARREGI" SARIA

GAIA: "IPAR ETA HEGO EUSKAL HERRIA".

- 1.—Lanak euskaraz idatziak, egileak bere kabuz eginak, eta ez da onhartuko ez itzulpenik, e besteetatik egin-dako antolamenik.
- 2.—Lanaren neurria: 2-tik 12 foliora, DIN A-4 neurrian, alde batetik makinaz idatziak, lerroz bat zuri utzirik.
- 3.—Lema batez izenpetua, eta lemaren giltza estaldua, egilearen izen eta deiturakin, lanarekin batera bidali behar da. Gainera, alfabetatze ikastaroaren monitorak lemaren giltza estalduaren alboan, fede eman beharko du nola lana duenak 1975ko udagoienetik harez gero alfabetatze ikastaroren baten parta hartu duen, ikaslo bezala, halegia.
- 4.—Lan bakoitzetik hiru ale bidali behar dira: "ASOCIACION GEREDIAGA; B.º Astola, ABADIANO, Vizcaya" zuzenbidera.
- 5.—Lanak bidaltzeko epea, 1976eko Uztailaren 31an amaitzen da.
- 6.—Saria, liburu sorta bat.
- 7.—Saria, Domu Santuetan, Durangon eratuko den XI. Euskal Liburu eta Disko Azokan iragarri eta emango da.

anaitasuna

Bizkaia
hamabosterokoa

ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealday

Urteko abonamendua:

Bertorako	500 pezeta
Latin Amerikarako	550 pezeta
Europa eta Ipar Amerikarako	700 pezeta

Ale bakoitza: 25 pezeta.

HELBIDEA:

Pelota, 4-1.º, Bilbao-5
Posta kaxa 495. tel. 4237449

Bizkaian

ALFABETATZEAREN URRATSAK

68 - 69 - 69 - 70

Bizkaiko Alfabetatzearen hastapenean, Herri Gaztedik eta Gizarte Eskolak, garrantzi berezia izan duten. Jenderik gehiena handik zetorren.

Herri Gaztediko azterketetan, ondoren honetara heltzen ginen: Gizon euskaldunaren heziketarako lehen pausoa, duen kulturaren kotzientzia hartzen da. Bestalde, instrumentu erabilkor bat behar zuen heziketa bide: euskara (ordurarte harreman publiko eta idatzietan erabili ez zuena).

Hala ere kultura lanari ez zitzaion garai honetan lehen mailako garrantzia ematen. Beste ekintzetan erretakoek hartzen zuten lan hau eta ez profesionalki.

70 - 71 - 72 - 73

Urte hauetan ikastolek hartutako abiadak izan zuten influentziarik Alfabetatzearen profesionaltzean.

Alde batetik andereño eta maisu, euskal kulturari emanak zeuden (horixe zen haien lana eta herri ekintza) eta hala ere lehenengoak zirenez ez zuten kultur lanabes bezala menderatzen askok. Orduantxe sortu ziren Alfabetatze profesionalak.

Donostiakoak jadanik honetan zebiltzan. Haiekin batera hasi ginen Bizkaiko Alfabetatzeari gorputza ematen.

Urteotan, jendea izugarritz ugaritu zen, nahiz eta lehenengo saioak monitoreak edo maisuak prestatzeko egin.

Hauekin batera agertu ziren arazoak ere:
a.- Ez zegoen materialik gertu. Euskara Batua-ren lehen urratsak ziren. Alfabetatzeak argi ikusi zuen bere betebeharra: herriko euskartik hasi behar zuen, baina euskara batua, orokorra menderatu arte ez zen euskalduna bere kultura osoa hartzeko gai izango; ez zegokeen alfabetatua.

b.- Ekonomi urritasuna gogorra zen. Lehengo arazoarik erantzuteko eta Donostiakoak, buru direlarik, LEHEN URRATSAK delako liburua argitaratu zen eta ARIKETA PROGRAMATU batzu ere bai.

Ekonomi arazoaren bideratzerik ez genuen aurkitu. Alfabetari bakoitza eta halaber Bulegoa, nolabait auto-bizi izan zen.

Denboraldi honetan amaitzen dira, bai eta ere, Gipuzkoako alfabetatzaileekin genituen harreman hain aberaskorrak. Hango zuzendariak beste zeregin batzuren garrantzi handiagoa ikusten dute eta beste arlo batzuri ekin.

Aurreko garaialdea amaitzean, agertu zitzaizkigun arazoak handiagotzen zihoazen:

a.- Ekonomi aldetik

b.- Profesional aldetik: Alfabetatze arduradunek, Patxi Elgezabal eta Juan Luis Goikoe-txeak, garai hartan Udako Ikastaroen eta Euskalduntzen (Euskaldun Berri Taldeen) ardurara ere hartu zuten. Honek irakasle gehiago ekarri zuen Euskaltzaindiko Alfabetatze Bulegora eta poliki poliki talde osatu.

c.- Ideologi aldetik: Zenbait bide ezberdinetan mugitzen ziren herriko indarrak, eta nola ez, Alfabetatze Bulegoa ere definitzera bultzatzen dute.

Bilboko Bulegoari aurkezten zaion dilema hauexeda:

— Alfabetatzea "Taldea" bakoitzaren ekintza da, ala

— Euskal indar guztien oinharri zabala.

Azken bide hau hautatu genuen. Baina ikusten dena zera da (Zornotza adibide) Alfabetatzearen herri eragina, eta hau bere mugetatik irten beharrik izan gabe, handia da.

Alfabetatze Taldeak garai honetan hiru arlo hartu zituen:

— Alfabetatzea

— Euskalduntzea (Udako Ikastaroak barne)

— Textugintza

Batez ere textugintzari bultzada berezia ematen zaio, beharizanek gero eta nabariagoak dira eta Euskalduntzen eta aurretik Alfabetatzeko A-punteak izango dira eragin honen fruitu.

Ekonomi arazoari ere soluzio bide bat ikusten zaio:

— Komisio arduradun bat sortzen da:

— eskariak

— sozio txartelak eta abar eramango dituenak.

— Eta batez ere Neguko Eskolak izango dira aurrerantzean. Alfabetatze Bulegoa finantziatuko dutenak.

75-76

Azken urtean ez dugu berezitasun gehiegirik nabaritu: aurrera goaz.

Esanbeharrezkoa da, hala ere:

— Alfabetatze lana ugarituz joanik, Bulegoa gero eta garrantzi handiagoa hartuz doala bai Euskaltzaindian eta bai herrietan. Koordinaketa lana beharrezkoagoa da; textugintza ezin utzia (aurten ALFABETATZEN liburua argitaratu dugu) eta lege babesak (gauzak asko aldatzen ez badira) zer esanik ere ez!!!

Honela irauten dugu, bada, aurrera Rikardo Arregik bigarren mailaz esaten zuena gogoan harturik:

" Alfabetatzea, irakurtzen erakuste hutsarekin ez da bukatzen. Hori lehen pausoa besterik ez da, eta pauso hori kasikan alferrikakoa izango da ondorenean beste batzu ez baldin badatoz ".

ALFABETATZEAREN HISTORIA

Sarrera:

Alfabetatzeak ba ditu bere bizitzan zehar urte batzuk. Hain zuzen 1968an iaio zen. Martin Ugaldek esaten duenez bere "Síntesis de la historia del País Vasco"n: "Los vascos no hemos sabido, o querido o podido, contar lo que hemos hecho ni lo que nos han hecho, y por esto mismo hemos caído en riesgo inevitable de dejar siempre estos relatos en manos —y en cabezas— de los demás, la mayoría de las veces nuestros adversarios, a menudo nuestros enemigos". Honekin konturaturik eta ingurukoek zirikatutik, lan honetan saiatu gara.

Ez da erreza zehatz mehatz aztertutiko ikuspegi oso bat ematea urte hauetako alfabetatzeaz. Urte asko izanik, alfabetatze lanetatik eratzaille asko pasatu da eta jarraipen baten faltaz, datu eta zehas-

tasun asko ere beraiekin joan dira. Horregatik ba, normala eskema hutsune eta gutti gora beherako datu batzu agertzea. Hau ere beste ezbehar batzuren antzera, profesionaltasun baten falta da eta ez da zertan errudunak aurkitzen saiatu.

UDAKO IKASTAROAK ETA NEGUKO ESKOLAK

Alfabetatze kanpainen inguruan beste euskal giro bat ere zortzen da. Honen ondorio bezala Neguko eskola batzu eta Udaiko ikastaroak antolatzen dira. Nabari denez, giro hau urterik urtera gehiagotzen ari da eta, era berean, garrantzi handiago bat hartzen. Eskema honetan ez dira agertzen Bizkai osoan ematen diren euskarazko eskolak ez eta guttiago ere. Lehen esan dugun bezala Alfabetatze bulego inguruan sortu direnen berri ematen dugu.

URTEA	DENBORA	JENDEA	NON
68	Uztaila	45	Gabiria
69	Uztaila	60	Urretxua
	Uztaila	—	Euba
70	UDA	47	Markina
	UDA	23	Oinati
	UDA	30	Leiza
71	UDA	65	Iruinea
	UDA	57	Donostia
	Uztaila	49	Iruinea
72	Uztaila	21	Bilbo
	Agorrila	50	Santiago Apostol
	Agorrila	46	Santutxu
73	Uztaila	132	Deustu
	Agorrila		
74	Uztaila	159	Deustu
	Agorrila		
75	Uztaila	112	Deustu
	Agorrila	151	

NEGUKO KLASEAK

URTERA	DENBORA	IKASLEAK	NON
71/72	NEGUA	116	Bilbo
72/73	NEGUA	178	Bilbo
73/74	NEGUA	127	Bilbo
74/75	NEGUA	184	Bilbo

URTEA	ESKUALDEAK	HERRIAK	JENDEA
68-69	Busturia	Axuria, Ibarruri, Areatza, Gernika, Altamira(Busturia), Bermeo, Belendiz.	175
69-70	Bilbo Haundia Euskaltzaindia Basauri Durangaldea		
70-71	Txoriherri Butroe Busturia Lea-Artibai Durangaldea Arratia	Derio Mungia Gernika Lekeitio-Ondarroa Durango Arantzazu	230
71-72	Txoriherri Butroe Busturia Lea-Artibai Durangaldea Arratia Basauri Bilbo Haundia	Larrabetzu, Derio, Sondika, Loju, Erandio, Goierri Mungia Bermeo-Gernika Lekeitio-Ondarroa Durango, Zornotza, Elorrio Abadiño, Otsandio, Zaldibar Arantzazu Areta-Basauri Deustu-Bilbo	563
72 - 73	Txoriherri Butroe Busturia Lea-Artibai Durangaldea Arratia Basauri	Larrabetzu, Larrondo, Sondika, Loju, La Campa, Lejoa Mungia Gernika-Bermeo Lekeitio-Ondarroa Durango-Zornotza Arantzazu, Dima Zeberio	212

URTEAESKUALDEAKHERRIAKJENDEA

73 - 74

Txorierri

Larrabetzu, Goiherri
Lejoa, Larrondo,
Astrabudua.

Butroe

Mungia

387

Busturia

Gernika, Bermeo

Lea-Artibai

Lekeitio, Mendexa,
Ondarroa,

Durangaldea

Durango, Abadiano
Ermua, Mallabia

Arratia

Arantzazu, Zeanuri, Arteaga
Areatza, Bedia, Lemoa

Basauri

Basauri

Bilbo Haundia

Deustu, Santutxu, Bilbo

74 - 75

Txorierri

Larrabetzu, Sondika, Derio

Butroe

Mungia

Busturia

Gernika, Bermeo, Mundaka

Lea-Artibai

Lekeitio, Ondarroa

Durangaldea

Durango, Zornotza, Ermua

305

Arratia

Igorre, Zeanuri, Bedia, Arteaga

Basauri

Arrigorriaga, Basauri, Galdakao,
San Migel Aperribai, Firestone

Bilbo Haundia

Santutxu, Bilbo, La Salle

ARRATIA

Gauza bat bizi denean historia bat izaten da; eta Arratiako alfabetatzearen historia hau da: Urte batzu delarik ibiliak dira zenbaitzu Arratian alfabetatzeari buruz zerbaitegin nahian. Arratia eskualdeko herri gehienetan izan dira alfabetatzen ari izan diren taldeak, baina ez dute iraupenik ukan, jendearen motelkeria edo metodo falta edo launtzarik eza, edo dena batera kausa dela. Hala ere, gaur, lan honetan ibili izan den, eta beste jende batzuek osatzen den talde bat eratu dugu arlo honetan iharduntzeko. Bigarren urratsak ematen ari garela esan genezake.

Urte honetan Alfabetatze Batzordeak, Bizkaia eskualdetan banatu du, eta guk Arratiako herri guztiak aipatuko ditugu, bakoitza zertan ari den jakin erazteko: Alfabetatze inguruak alderdi bi ditu Arratia eskualdean: Bata alfabetatzea bereziki eta bestea euskalduntzea.

Orain zeintzu herritan zer egiten den aipatuko dugu:

— Euskalduntzen 1, herri hauetan ematen da: Bedia, Lemoa eta Areatza. Denetara hiru talde.

— Euskalduntzen 2, beste herri hauetan: Igorren talde bat eta Areatzan bestea.

— Alfabetatzen: Lemoan talde bat, Igorren bi, Diman bat, Gaztelu-Elezabeitian bi, Areatzan bat eta Zeanurin beste bat.

Talde guzti hauk Alfabetatzen metodoa erabiltzen dute. Arantzazun, ordea, Derioko apurte osatuak erabiltzen dira; alfabetatzen diharduenak gaztetxoak izanik lehen urratsak bizkaieraz ematen ditzaten.

Gehienbat, alfabetatzeko eskola hauk elizaren edo elizak utzitako lokaletan ematen dira.

Ordu arazoa ez da ttikiago gure artean, zeren gehienak larunbat arratsaldetan izaten dute eskolara etortzeko era. Hau baino ttikiago den arazoa irakasle urritasuna. Gauza bi hauek tarteko direla ateratzen diren ondorioak, ikasle taldeen desberdintasuna eta handiegia izatea lirake.

Arratiako alfabetatzen murgiltzen den jendearen zehaztasunik edukitzeko ikus eta azter ezazu ondoko koadro hau:

Alfabetatzen 1	ikasle	langile	adina
Gizonezkoak	83	46	37
Andrazkoak	90	58	32
Danetara	173	104	69

Euskalduntzen 1 ... 23

Euskalduntzen 2 ... 14

Uste dugu zifra berek adierazten dutela nahiko argi Arratiako euskal kultur mugimenduari krisieilua jende gazteak daramatela. Hala ere nahiz

BUTROE ESKUALDEAN

ORAINGO ETA AURREKOEN ARTEKO EZBERDINTASUNAK.

Ezberdintasun hau hiru puntutan ager daiteke: zabalkuntzan, irakasteko sisteman eta irakasleengan.

Zabalkuntzari dagokionez, inoiztik baino jende gehiago bildu gara nahiz eta gehiagotara heldu behar.

Irakasteko sistemaz ALFABETATZEN metodoak aurrerapide handi bat eragin digu, orain arteko hutsune bat betez, Hala ta guztiz ere, bete behar batzu aipatzen ditugu, ikastaroaren plangintza bat, bizkaierazko aditzaren erakunde bat, hitzaldien berritzea, etab, etab.

Bide batez aipatu nahi genuke, nahiz eta beste maila batetan, EUSKALDUNTZEN metodoaren laguntza.

Beste alde batetik, haseratan irakasle faltan aurkitzen ginen. Gaur egun, falta hau betetzeko gehiago eta gertuxeago direla esan dezakegu. Lan honetan jarraituz dozena erdi bat irakasle titulu ateratzea nahi genuke, horrela gure helburu bat betetzeko.

Eta azkenez, aurten hartu duen instituzionalizazio bat aipa genezake, gorputz sendo bat hartu baitu. Honela hemendik aurrerako bide bat jarri dugu.

HISTORIA TTIKI BAT

Historia hau azaltzerakoan, azken bost sei urte hauetan, gogoan izan dugun ekintza bat dela esango genuke. Orduetik hona bost bat aldiz ihardun dugu ekintza honetan. Arrazoia, jakina, bai euskara mailan eta bai euskal kulturari dagokion arloan, gure ezjakintasuna zen. Berau betetzeko bide bat alfabetatzea zela ikusi genuen. Hasera batez arazo latza zen, maisu eta irakasteko metodoaren faltaz ikusten ginen eta; hutsune hau betetzeko argitasun gabe aurkitzen ginen. Baina ozta-ozta aurrera jo genuen, hala ere.

Geroztik, behar bada, indar pixkat gehiagoz baliaturik, lan hau, zabaldu nahian, herriari aurrez aurre propaganda bidez agertu genion. Hemen sortu ziren orduetik gaur arte iraun duten oztopoak: Alde batetik benetako euskara ez zela guk erakutsi nahi genuena esanez, edo eta euskara baino zerbait gehiago dela salatuz. Honekin batera ordurarte erabilitako tokiak hitxi egin zitzaizkigun. Zertan esanik ez dago, oztopo hauk ideologia mailako ezberdintasunetik sortuak zirela. Beraiek egin ez eta besteei egiten utzi ez. Gaur egun egoera hau zerbait aldatzen ari da.

Denborak aurrera zihoazela eta Euskal Akademiaren laguntzaz pixkat gehiago sendotu zen gure lan hau, ikastaro oso bat eratuz. Aurrerakuntza hau Euskal Herri osoan izan zenarekin batera zihoala uste dugu, metodo berrien gertatzea, irakasleentz sortzea, . . . orduan sendotu baitzen.

Ikastaro hauen bidez eta ALFABETATZEN metodoak lagunduz, kanpaina osoago bat eratzeko gaituak garela uste dugu. Horra hor aurtengo ikastaroa.

GAUR EGUNEKO GIROA

Gaur eguneko giroa azaltzerakoan dato bat emango ditugu:

ZENBAT IKASLE:

— 45 ikasle daude lau taldetan banatuta:

a).- Alfabetatzean talde bat.

b).- Euskalduntzen 1.- talde bi.

c).- Euskalduntzen 2.- talde bat.

METODO: Euskalduntzen eta Alfabetatzen 1.- segitzen diegu.

Euskalduntzen erabiltzen den taldean nahiz eta liburuari segituz talde bakoitzean, metodo berezi bat eratu da. Euskal kultur maila batetan sartu nahian — Elkar hizketak — Kantak — Euskal Herriaren Historia eta Geografia ikasten ari dira.

Alfabetatzen: Alfabetatzen metodoa onhartzten dugu nahiz eta hutsune hauekin aurkitu.

— Planifikazio mailan.

— Ikastaro pedagogikoen hutsunea.

— Hitzaldi berri batzuren behar izana.

Oztopo hauk gainditukeran plan berezi honi nahi genioke segitu:

— Aditzak bizkaieraz azaltzea.

— Apunten bitartez (aditza, gramatika, deklinabideak) liburu osatzera goaz.

— Hitzaldi batzu geure artean prestatzea.

HELBURUAK:

— Mungialdeko beste herrietara zabaltzea.

— Jende tituluduna lortzea (prestakizun bat hartzea zabalbide bat emateko).

— Alfabetatzeko taldea bitan banatzea.

— Udan ikastaroa bat egitea.

— Alfabetatzea lantzen dutenak datorren ikastarorako irakasleak izango dira.

— Helburu nagusi bezala — Euskal kultura geure herrian sendatzea:

a).- Hitzaldien bidez

b).- Jaialdiak, Olentzar

c).- Bertso saioak

d).- Disko eta liburuen erakusketa

JENDEA: Alfabetatze mailara, langileak, andereñoak, ikasleak etortzen dira.

Euskalduntzeko mailara, ezkonduak (talde bat), langileak eta institutuko jendea etorten dira.

Butroeko Alfabetatze Batzordea

DURANGALDEA

(eguneroko burruka ixil, latz, aspergarri eta hospe gabekoaren frogantzan)

Ba dira urte mordoxka bat gure eskualdean hizkuntzaren-ganako kezka eta ardura bat agertu zela, barneko herri minak eraginik zenbaitek lan horri heldu geniola, eta gaur, aldakuntza batzuren aurrean aurkitzen bagara, zazpi zortzi urteko lan eskargaren ondorio bat besterik ez da; lana eten gabe eginez gero uzta jaso dela frogatze bat besterik ez.

HASTAPENAK

Alfabetatze edo hizkuntza ikaste zabal baten beharrezana 1967. urtean agertzen da eskualdean. Asmoak Herri Gaztediren eskutik zetozen eta Berrizen gorpuzten da Jon Oñati-biak egindako ikastaro bat antolatzen delarik.

Hurrengo urte bietan, Durangon, Berrizen eta Gerediagako Salbatore ermitan ematen dira ikastaroak. Urte haietan hemen izan genuen geure artean Rikardo Arregi, mugimenduaren arima eta sortzailea, bere helburuak, ideiak, kezkek eta, nola ez, gure alferkeriak eta euskalduneriak salatzen eta astintzen. Berari entzun genion **"ulertzen ez gaituztenean ulertuko gaituzte"** egia biribila.

Entzute guztiz txarra zuen gure Rikardok orduan, —sarri askotan bezala euskal baratzean— ez ezagutzen genuenagatik, besteak esaten zigutenagatik baizik. Haren hitzak lasaigarri eta bultzagarri sortu zitzaizkigun eta lanari ekin genion.

Esan genezake hiru urte hauek markatzen dutela hasiera batetako egoera baten lehen atala, Herri Gaztediarena. Beste su batzuren artean ere alfabetatu beharrena berak sortu zuen.

LEHEN URRATSETAN

"ez zarete politikoak kulturalistak baizik"

Horra hor gure bekatua, politiko izan behar zen garaietan. 1970-71 eko ikastaroan oinharriak jartzen hasi ginen. Asmoa, bereziki alfabetatzen eta kultur mailan lan egingo zuten talde batzuren prestatzea genuen, eskualde maila osoan jokatzu.

Horretarako irakasle maila bat lortzetik hastea pentsatu genuen, urte honetan eta hurrengoan ikastaro batzuk antolatuz. Lehen urtean 38 parte hartu genuen eta 36k bigarrenean; haueetatik 16 andereño eta gainerakoak, batez ere bulegariak, ikasketa sakonik gabeko herriko jendea, urteotan barrera alfabetatze irakaslegoaren muina izango dena.

Prestatzeaz ba zegoen zertaz kezka. Lehen urtean ikastaldiok ematen Bilbotik etorri zitzaizkigun, baina praktikan nahi genuen beste ez genuela lortzen ikusiz, geuk heldu genion lan horri. Bi urte pasatu genituen prestatzen eta bigarren urtean hasi ginen eskualdeko herrietan lanean, ikasita genuen apurra irakasten.

	70-71	71-72	72-73	73-74	74-75	75-76*
Irakasleak	38	36	17	18	20	30
Ikasleak		62	31	38	47	88
Alfabetatzen			23	107	47	137
Euskalduntzen			6			44
Umeen Alfabet.						
Herriak	Durango	Durango	Durango	Durango	Durango	Durango
	Elorrio	Elorrio	Elorrio	Elorrio	Elorrio	Elorrio
	H. Haundi	H. Haundi	H. Haundi	H. Haundi	H. Haundi	H. Haundi
	Matierna	Matierna	Matierna	Matierna	Matierna	Matierna
	Igorreta	Igorreta	Igorreta	Igorreta	Igorreta	Igorreta
	Berna	Berna	Berna	Berna	Berna	Berna
						Abadiano
						Zornotza
						Igorreta

*Ez daude datu guztiak

Hasiera hainbat herritan emon genion baina fruituak ikusteke zeuden eta ez ziren izan oparoegiak. Noski, ez zen harritzekoa, gizarteak zeraman abiadaren aurka burrukatuz gainera, beste eremu batzuetako burrukalarien destaina mingarria ez zitzaigun falta: "honelako memelokerietan zabiltzate oraindik, badago hori baino gauza garrantzizkoagorik non lan egin" esaldi amorratua, alper askoren estalpe genuen eta konpongaiz agertzen ziren arazo bortitz batzuren konponbide errazegia beste askorentzat.

1972-73. ikastaroan mugimendua zenbait herri eta hauenetan jausten zaigu. Urte latza askorentzat, irakasleak prest emateko eta ikaslerik ez! Zenbaitek, erreta, mugimendua uzten du.

Herri bitan hartzen du indarra, Elorrión eta Durangon eta agian, kanpotik etorritako jende gehiena hor kokatzen delako edo, euskalduntzeko ikastaroak sortzen dira indartsu erdal-dunen eskariz.

Bide ezberdin bi horik eramango dira hemendik aurrera, Alfabetatzen eta Euskalduntzen, arazo eta eragin ezberdinei erantzuten dietelarik.

Herrietako porrotak eta mugimenduaren gainbeheratzeak taktika aldatzera eramango gaitu; mugimenduak indarra hartu duen tokietan danok biltzera eta bertan lan egitera, herrietan sakabanatuta zeuden irakasleak galdu ez zitezten.

Ondo pentsatu eta aztertut genituen sakabanatzearen arriskuak. Elkartuta lan egin ez bata bestearen laguntza genuen, ez zen bakarka jokatzea, herri askotan bezala, eta indarra hartuz joango ginen neurrian giroa aldatzeari posibilitate gehiago ikusten genion. Erantzun baikor bat eman ziguten baratzeak landuz jende berria aterateko aukera genuen, jende berria bide berriak zabaltzeko posibilitatea zen eta bideak hedatuz zihoazen neurrian giro bat sortuko genuen eta giroak berak ekarteraziko zuen jende gehiago.

1973-74 ikastaroan Euskalduntzeak hartzen du sekulako indarra eta Ermuan hasten dira Alfabetatzen, baina nahiz eta lehen urratsak Durangora begira emon, laster ikusten dugu hobe dutela Eibar aldeari lotu, eta horrela jarraituko dute aurrerantzean. Otxandio dugu hemen aipatzen ez dugun beste herri bat lan honetan diharduena.

1974-75an beste arazo bat agertzen zaigu, barria guretzat eta pozgarria eta penagarria batera. Ikaslegoa murrizten zaigu, irakasle faltaz. Aurreko urtean euskalduntzeko ematen zuten ikastola batetako andereñoek lan hori uzten dute. Gu, alfabetatzeak gaintuta ikusten dugu geure burua, agertzen zaigun jende uholdeaz. Jende asko, euskalduntzen irautea nahi zutenak, kanpoan uztera behartuak geunden. Aldakuntza hasia da.

Egoera berri baten ateetan gaude. Giroa geure alde jarri dugu, lana bitarte dela, baina erantzun ahal izango diogu sortutako eraginari? Ez ote gara izango itoak?

Aurtengo urteko hedadura eta arrakastak itxaropena dakarkigu eta ez bakarrik jende ugaritasunari gagozkiorarik, hori normala dugu, pozgarriagoa orain arte funtzio positiboa ukatzen izan diguten inguruak arduratzen hastea izan da. Alfabetatzen ihardutea garrantzizko lana bihurtu zaigu, (ala bihurtu dugu?) gizarte mailan.

Konturatuko zineten gure bideari beste leku batzuetako katramilak falta zitzaizkiola, toki arazoa eta hizkuntza arazoa.

Euskal kulturari ipingiz ezarten ari garen bide honetan, zerbait lortu badugu, guttiegi gure ustetan, toki aldetik urtero urtero izan ditugun erraztasunak askoz errazagoa egin du gure lana, horretan Durangoko Jesuitek eta Elorrioko Ikastolak badute beren zatia, eta ez ttikia.

Hizkuntzari dagokionez, baturantz ala bizkaitarra, guk ez dugu burruka garrantzik ezagutu; baturantz abiatu ginen eta horrela irauten dugu. Toki uzte aldetik inoiz ez digute jarri baldintzarik, beste eskualde batzutan bezala.

Gaur egun lan berriei heltzeko aukeran gaudela pentsatzen hasiak gara, bideak bilatu behar; zenbait inguru eta tokitara heltzen hasiak gara eta lehengo destainek euskalduntasunaren fragotzeari utzi diote leku eta txartel hori irabazi behar denez, denborak esango du nork zergatik diharduen.

Bitartean ahal denik eta zabalak jokatzeko asmoa dugu, danok eskualdeko batzorde baten bilduz. Hizkuntza ez dugu eritzi batzuren patrimonioa, herriarena baizik, denok lan genegike hemen eta egin behar genuke.

DURANGALDEKO ALFABETATZEKOEK

Lea-Artibai

ALFABETATZEA LEA-ARTIBAI ESKUALDEAN

Ondarroa da gure eskualde honetako herririk inportanteena. Eta ba dute Ondarroatarrak euskal kultur arloan, azken urteotan irabazitako tradizio bat. Hangoa dugu, esate baterako, eskualde osoan dagoen benetako ikastola bakarra. Alfabetatzean ere, ondarroatarrak izan ziren Lea-Artibai honetako aintzidariak, eta iragan dira hamar urte luze, lehen urratsak eman zituztenek. Agurtzane Jaio, Imanol Badiola, Luis Maria Alkorta eta Josu Arrizabalaga izan ziren orduko irakasleak. Orain gertatzen den bezala, bateratsu zihozaren orduan Herri ikastola eta alfabetatze mugimendua, eta indar handiz zebilen azken hau. Zoritxarrez, 1969. urtearen inguruan Euskal Herrian gertatuko burruka ideologikoak ebakidura bortitza suposatu zuen alfabetatzearen martxan eta ez da erraza izan, orduko krisiak utzitako ondorioak gaintitza.

Jose Luis Perez eta Kepa Perez ditugu, azken hiru ikasturteotan ihardun duten irakasleak. Beraien eskoletatik pasatu direnak, ehun baino gehiago dira, gazteak eta nagusiak, neska-mutilak, langile eta estudianteak. Gauza bat azpimarkatzekoa hemen: nabaria izan da beti arrantzaleen falta eskoletan. Lortu diren gauzetatik bat aipatuko gerruke: tituludun irakasle berriak sortu dira herriko alfabatizatetik.

Etorkizun hurbilari so eginik, dakusagun espe-rantza handiena, Ondarroako institutuan alfabetatzea sartzekoa da. Hango ikasleen artean, 280 sinadura bildu ondoren, asmo horren alde, Institutuko zuzendarien erantzunaren zain gaude.

Eta eskualdeko bigarren postuan, Lekeitioko agertzen zaigu; problemaz beterik agertu ere. Ba dira bost urte Anjel Ugarteburuk lehen alfabetatze ikastaroa eman zuela herri honetan. Urtebeteko hutsune baten ondoren Mikel Kalzakortak eta Jose Llerandik jarri zuten berriro martxan. Eta harez gero zenbait fruitu emanak ditu alfabetatzeak herri honetan. Batetik monitore berriak formatu dira: Aintzane Aboitiz, Erramun Egurrola eta Sorkunde Txurruka. Bestetik, eta hau da nire eritziz gure lorpenik garrantzitsuenak, oso giro berezi bat sortu da eskolen inguruan; Euskal Herriaz eta bere egoeraz arduratzen eta gure kulturaren aktiboki parte hartzen bultzatzen duen giro bat sortu da. Alfabetatzea euskal kontzientziatzailea gertatu zaigu benetan.

Baina dena ezin daiteke beti ondo joan eta ba dugu problema handi bat Lekeition, alfabetatze lanotan aurki daitezkeenetik haundienetik: bat: lokal gabe gaude, ez dugu eskolak non eman. Hau dela eta, aurtengo ikastaroa ez da hasi ahal izan.

Lokalak, egon daude herrian, baina hankak moztu nahi dizkiote batzuk alfabetatzeari eta ez digute ikasgelarik utzi nahi. Ba da herrian, herriaren lanaz, herriaren diruaz eta herriaren zerbitzurako eraikitako etxe zabal eta eder bat, "Gizarte Etxea" hlegia. Gazte eta aurrerazale agertu da beti gure mugimendua, eta honegatik, beharbada, ez da batzuentzat begiko gertatu. Herriaren zerbitzurako diren lokal horik, "Sociedad de Familias" erdal-dun erakundeak eta Elizak kontrolatzen dituzte. Ez dugu ez batzuegandik ez besteegandik espero zitezkeen ihardespina eta laguntza hartu. Gure lehengo lokalak ere, etxe horretan zeuden, baino argiro ez dauden motiboengatik atek hertsí egin

zizkiguten. Halere ez dugu etsi. Eta noiz, non eta nola jakin ez arren segur gaude Lekeitioko alfabetatzea berrasiko dela.

Eskualdeko beste herrietan ez da inoiz eze egin. Eta zerbait egiteko, monitoreen falta agertzen zaigu problema nagusia. Alfabetatzerako zenbait irakasle prestatzeko ikastaro intentsibo bat munitu da Markinan. Berrogei bat lagunek hartzen dute parte larunbat arratsaldero ematen diren eskoletan. Markina bilatu zaigu, bada, eskualdeko alfabetatze zentrua.

Bizkaiko alderdi honetako alfabetatzearen historia egiten hasiz gero, oraindik geratzen zaigun egitekoaren handitasunaz kargu gaitzke berehala. Ondarroan eta Lekeition egin da zerbait orain arte. Beste toki guztiak ukitzeke daude. Haatik, ezin uka, gure posibilitateen urritasuna kontutan harturik, zerbait egin denik; nahikotxo nik uste. Eta inportanteena, hau aurrera doa.

LEA - ARTIBAI ALDEKOAK

LEKEITIOKO IKASLEAK MINTZO

Euskal kulturaren errealitateaz oraindik jabetu barik, dagoen euskaldun arruntak hain beharrezko duen saltoa eman dezan, tokirik egokiena alfabetatzea da. Interesgarri eta premiazko deritzagu, beraz, gure kulturaren oinharri izanen direnen eritzia batzeari, alfabetatzearen eguneroko bizitza ezagut dezagun. Lekeitioko alfabetatzean ari diren lau neska - mutilekin elkar hizketa hau egin dugu. Neskak: Aintzane eta Sorkunde; mutilak: Andoni eta Juan Migel. Nolabait hasteko, alfabetatzeaz zer uste duten galdetu diegu. Magnetofono martxan jarri eta horra hor hartukoak:

Sorkunde Euskalduna izanik, idazten eta irakurtzen ez jakitea pegagarria zena, lehendik ere ikusten nuen gauza bat zen. Eta horregatik ikasi nahi nuen. Baina, egia esan, besterik ez nuen ikusten. Orain, berriz, gauza gehiagoz konturatu naiz. Herri batek bere kultura eta bere gauza guztiak eduki behar dituela ikusten dut.

Aintzane Bai, neuri ere horixe gertatu zitzaidan. Euskara ondo ezagutzea beharrezkoa zela uste nuen. Zergatik, ez nekien. Gero, alfabetatzean, historiako gauzak eta ikusi ondoren, beste era batera dakusat Euskal Herriaren kultura eta problema guztia; lehen euskal kultura zegoenik ere ez nekien ia.

Neskek berba egiten duten artean, mutil biak ixilik daude; magnetofoiaren beldur, beharbada. Lekeitioko alfabetatzean zifraz beti izan dira emakumezkoak nagusi. Galdera hau bururatu zaigu: Nolako eragina ukan zuen zeuongan emaztegarriak eskoletara etortzeak, zuok berdin egiteko?

Andoni Ba, nahikotxo nire ustez. Neskak

etortzean guk ere berdin egin dugu. Baina ez pen-
tsa hori bakarrik denik. Haseran, beharbada, horixe
zen arrazoi nagusia; baina gero norberak aurrerapen
batzu egiten dituela ikustean, animatu eta gehiago
ikasteko gogoia sartu egiten da. Esate baterako, ni
Gipuzkoan estudiantzen egoten naiz eta Bizkaitarra
izanik, hangoekin ezin konponduta ibiltzen nintzen
euskaraz egitean; gaur egun euskara batua apur bat
ikasirik, problema gabe ibiltzen naiz gipuzekin.

Sorkunde Holako diferentziak gauza askotan
nabaritzen dira. Egun, nik dena eskribatzen dut
euskaraz, notak, kartak eta ahal dudan guztia, ongi
ala gaizki, baina beti euskaraz. Lehen ez nintzen
gauza, nota triste bat euskaraz egiteko. Irakurtzean
ere asko igartzen da; gure etxean, aspaldidanik
hartzen izan dugu "Anaitasuna", baina inork ez
zuen irakurtzen. Hartu eta "zer kristo dakarren
honek" esanik, alde batetara bota egiten nuen, ez
bainuen tutik ere ulertzen. Erradiotik, ematen diren
euskarazko programez eta kantuez gauza bera ger-
tatzen zait. Orain denaz enteratzen naiz. Eta nire
moduan, segur nago, besteei ere berdin jazo zaiela.

Gu Andoni, arrantzalea izanik, zergatik uste
duzu hain arrantzale guti datorrela klaseetara?

Andoni Alde batetik: betikoa, kontzientziarik
ez dugulako. Eta gainera, itsasoan sarturik ibili eta

lehorrerutzen zarenean ez da eskolara sartzeko go-
gorik izaten, nahiago izaten da lagunekin txikiteo-
an ibili. Gainera, arrantzaleen artean, halako infe-
rioritate konplexu bat egoten da sarritan, eta kla-
se batzutan sartuz gero, irridikula egingo dutela
uste dute.

Juan Migel Hori bai dela benetazko problema
bat; eta nire ustez, alfabetatzera neska gehiago ba-
dator, alde batetik horrexegatik da, txikiteoaren-
tik. Lekeitioko kuadrila gehienak, ia arratsalde guz-
tietan ibiltzen dira ardoak hartzen. Eta baten batek
ohitura hori uzten badu alfabetatzera joateko, txar-
to edo hartzen dute eta burlatu egiten dira. Hori
nire lagunen taldean gertatzen den gauza bat da.
Eta eskolan ikasitako hitzen bat eskapatzen baiza-
zu, orduan harrokeriatzat hartzen dute eta adarra
jotzen hasi.

Aintzane Bai, baina, nik ez dut hori hain argi
ikusten. Begira, alfabetatzera etorri ez arren, nes-
kok baino euskara gehiago egiten dute mutilek,
Baina halere, ez alfabetatzerako bakarrik, bai men-
dira joateko edo zerbait antolatzeke beti zaizkigu
neskak prestago mutilak baino.

LEKEITIOKOAK

Hibaizabal Eskualdea

Egia esan, Hibaizabal aldeko alfabetatzearen
historia egitea ez dago ongi abiatuak, eskualde
honetan euskalduntze bat eman da eta. Dena den
derrigorreskoa ikusten da alfabetatzea zenbait he-
rrietan, Orozkon, Arakaldon, Zollon, Zaratamon,
Ugaon, . . . hategia. Hala ere, herri hauetan ez
da ematen alfabetatzerik.

Gaur herri bitan finkatu behar gara alfabetat-
ze lana ikusteko: Basauri eta Galdakao, azkenean
gure Euskalduntzearen berri emateko.

Galdakaoko historia bereiztea oso zaila da.
Ezer ez zekiten euskal jendeekin hasi ginen. Orain
sei urte izango da. Ikastaro hasieran hamabost bat
izan ginen. Amaieran, berriz sei bat. Hurrengo ur-
tean talde bi zeuden.

Talde horretan denetariokoak ziren, ezerezetik
hitz egitera heldu zirenak eta zerbait jakinda hasi
zirenak. Irakaslerik ez geneukan eta, nahastu egin
behar. Hurrengo urteetan jendea gehituz joan da.

Gaur alfabetatze barruan daudenak hirurogei
bat izango dira, gutti gora behera. Lau taldetan
sartuta daude. Eta haien artean, orain dela bost-sei
urte hasi ziren euskaldun berriak.

Lau talde horietatik bakoitzak metodo berezia
darabil. Bik Derioko Ikastaroko materiala erabiltzen
du.

Talde horien helburua, gaur gaurkoz, bizkaiera
menperatzea da. Goiko mailan dagoen taldea oster-
ra, bizkaieraz eta batuaz egiten ahal egintzen da.

Adin guztitariko jendea dabil, batez bere gaz-
teak, estudianteak gehienak, nahiz ta langileak ere
izan batzu. Erdiak baino gehiago andrazkoak dira.

Ez dugu harremanik eduki beste lekutariko
alfabetatze taldeekin, geure asmorik gogorrena al-
fabetatzea baino, euskalduntzea izan delako. Orain
beste ehun ta hogeitabost euskal ikasle berri ditu-
gu. Euskalduntze horretan giro bat lortu dugunez
gero, orain alfabetatzeko bidean sakontzea ondo
ikusiko genuke.

Historian sarturik, Basaurin 1974.eko aben-
duan hasi ginen talde bitan banaturik, alde bateta-
tik 8 ikasle eta, bestetik 11. Azkenean ia berberok
irauten genuen. Gramatikatik aparte, historia ere
eman genuen.

Talde biekien bat egin zen, udan segituz, 10
bat geunden, eta, berdin jarraitu genuen 1974-1975
ikasturtean. Baina urte hau ez zen hain ongi irten,
hori zela eta maiatzean amaitu beharra ukan ge-
nuen. Beti bezala irakasleak bere metodo pertsona-
la erabili zuten eta, gramatikari garrantzia kendurik,
geografia eta ekonomiaren kontzeptu orokorrak
ikustera saiatu ginen, gramatika ahaztu barik.

Ikasturte berean 1. mailako talde bat hasi zen,
4 irakaslerekin, metodo bereziarekin eta arrakasta
txikiarekin. 1975.eko uztailan, ikastaro batetan,
beste 9 batu ziren talde honekin 3. Euskalduntzen-
ez baliatuz alde batetatik eta, pertsonal lanak beste-
tik. Oso ongi joan zen.

Honela alfabetatze talde biak baturik, gaur 10 gaude 3. mailan, eta beste 10 1. mailan, ikusten denez ez dugu 2. mailarik.

3. mailakoak irakaslearen metodoaz ari dira, Euskaltzaindiko titulua lortzeko zer eskatzen den haintzat harturik. Beste taldea Alfabetatzen liburuaz baliatzen da.

Helburua alfabetatzea da noski, baina ez gramatika aldetik bakarrik, hau egitea alfabetatzearen betekizuna sinpletzea iruditzen zaigu. Pertsona batek irakurtzen eta idazten jakitearren ez du ulertu behar derrigorrez irakurtzen duena, politika, ekonomia, eta horrelakoak badira batez ere. Gure lanak, bada, gauza guztiak irakurtzeko ahal izatea izan behar du, ongi aditurik bere zentzua eta mamia. Horretarako derrigorrezkoa dugu ikuspegi orokor bat hartzea, alfabetatzearen esannahi hutsa alde batetara utzirik, baina azkenean, hura osatuz joango zaiona. Hori dela eta, berriz, ekonomia aldetik jo beharra ukan dugu, beste gauza guztietan duen garrantzia ulertuz gero. Hau amaitzean beste gauza batzu aztertuko genituzke.

Etortzen den jendea gaztea da — akatsa ala sintoma? — Sexu aldetik, ia denak emakumeak dira — kasualitatea ala sintoma? — Gehienak estudianteak dira. Eta non daude nagusiak eta zaharrak? Non langileak? Ala, gazteen eta estudianteen amets zoroak ote dira? Gero zerbait ez badute ulertzen, batuaz dagoela edo, esango digute.

Alfabetatze barnean ere, Kili-Kili-ko kanpainak ematen dira. Zaratamon eta Ugaon batez ere arrakasta handia lortzen dute. Ugaon 70 bat ume dago, 10 irakaslekin. Zaratamon aldiz, 25 ume eta 5 irakasle.

— Alfabetatzea nola, Euskalduntzea ere hala ematen da, zeren Alfabetatzearen diren herri indartzeenak Euskalduntzearen ere erakusten dira, honela Zollon, Zaratamon, Orozkon, Arrankudiagan, Ibarrran eta Arakaldon ez da ezer ere ematen. Arrigorriagan eta Ugaon oso ahula da eta Basaurin, Galdakaon, eta Etxebarrin gero eta indar handiago hartzen dute. Adibide gisa, Etxebarrin, aurten hasi dira klaseak, 125 pertsona bildurik, eta horietatik 78 umeak dira. Basaurin eta Galdakaon ihaz baino 2 bider gehiago dute aurten, 110 bat batez beste. Bestaldetik ere, Arrigorriagan, Galdakaon eta Basaurin eskoletan ematea lortu da (Basaurin eskola bitan).

— Hasieratik aurtengo egoeran finkatu bagara, orain arte ia ezer egon ez delako izan da. Nahiz eta herri batzutan klase batzuk egon, ez zuten koordina-ziorik beste batzurekin. Urte bitik hona, aitzitik, bultzapen bat ikusi da. Historia ttiki bat egitekotan, talde ttiki batzu ikusiko genituzte, estrukturapen barik. Urte bi dela, gaur dugun egitura hasi zen ikusten, urtero jende gehiago batzen. Desberdintasuna, beraz, nabaria da.

Nolako jendea heltzen zaigun ikusteko, baita helburuak jartzeko ere, Alfabetatzeaz esan duguna balia dakigun, nahiz eta hemen nagusi gehiago ikusi eta, gizonen zenbakia handitu baina emakumeen heinera heldu gabe.

Metodo aldetik, erabiltzen den ia bakarra, Euskalduntzen — 3 mailatan — liburua da. He-

mendik aparte bizkaieraz ikasten dutenak gela-tzen dira.

Amaitzeko esan dezagun eskualdearen batzuna lortu behar dugula — hortan gabilta — edagoena sortzeko eta, dagoena indartzeko.

Zifretan gelditzen bagara, hau da: eskualdeko aurtengo ikuspegi orokorra:

Alfabetatzean : 80 (nagusiak)

90 Kili-Kilikoak, postaz bakarrik ikasten dutenak haintzat hartu gabe.

Euskalduntzen : 515, hala ere zenbaki hau 550 batetan utz genezake, hortik beste zenbait talde dagoela baitakigu baina oraindik ez dugu hartu haien datu segurik.

Eskoletan 700 bat (Galdakaon, batzuk elizan ematen dute, udaltxeari honelako gauzak ikas ditzaitez baitzaio, antza, gustatzen.

ELKAR HIZKETA

Gure akatsak zeintzu diren jakitea beharrezkoa izan behar zaigu; gai honi buruz bada, mintza gaitzake:

— Ez dago metodorik eta beharrezkoak dira egiturak, joskera berezi batzu hiztegia, etab. ikastea.

— Nik hasieran Anaitasuna ez nuen ulertzen eta, orain, erraza zait. Gure akatsa ez irakurtzetik datorkigu. Alfabetatzearen lana irakurtzeko laguntza bat izango litzateke eta hor, zuk esan duzuna aplikatu. Horretarako etxean irakurri behar duzu, bestela ez duzu ezer ere aurreratzen.

— Irakurtzeak eta Alfabetatze metodoak batera joan behar dute, eta bietan huts egiten dugu.

— Beste akats bat jendearen jakintza maila nahastua dagoela da.

— Gainera ikasleek batzutan ez dute lana seriozki haatzen, etxean, adibidez, ez da sarritan ezer ere egiten.

— Bai, alde honetatik eta bai bestetik beharrezkoa dugu birplanteamundu orokor bat egitea.

— Izan ere orain arte erabili dugun metodoa 2 partean — zera izan da: batek ekonomiari buruz zerbait ekartzen du eta, hau azaltzen da, batzutan, eztabaida sorturik. Baina askotan, azaltzen duenak, bakarrik ulertzen du, ez besteok.

— Bestalde, astero, bakoitzak iruzkin bat ekarri behar dugu, edozein gaiari buruz eta denon artean komentatu.

— Hona ere, beste gauza bat: zergatik ez zaigu jende adinekorik etortzen?

— Inoiz ez gara heltzen haiengana.

— Kartelak egon dira alfabetatzeri etortzeko, irakurri behar ukan dute.

— Baina adinekoak askotan beldur handia izaten du, berriz zerbait ikastera joateko. Ez du bere jakintzaren segurtasunik.

— “Ez naiz helduko gazteen heinera” hau eta horrelako justifikazioak jartzen dituzte.

— Baita alfabetatzeko asmo handirik ez dutela ere, ez dute ikasteko beharrik ikusten.

— Bai, hori da, alde batetatik beldurra eta, bestetik axolagabekeria.

— Egia esan, gazteok sorterazi dugu beldur hori; “konplemento direktoak” eta, aipatzen ditugunean, ihes egiten digute eta.

— Beste metodo bat beharko genuke nagusientzat, irakurtzeari garrantzi handia emanik.

HIBAIZABAL ESKUALDEKOEK.

SANTUTXU

Santutxu-ko Euskal-eskolen berriak

Gura euskarazko eskolen berriak eskatu dizkiguzue. Hemen dituzue xorta batean bildurik. Zuek jarri nahi dituzuen modutara. Guk, egin dizkiguzuen galderei jarraituz erantzungo dizkizuegu.

1.- Nōiz asi zineten euskara jende nagusiei irakasten?

Orain hamaika urte direla. Hemengo euskaltzale porrokatu batzuk bultzaturik hain zuzen. Garai hartan ba zegoen beharrizanik ugari hemengo alderdi honetan, euskaldunok sakabanaturik genbiltzanez.

2.- Zenbat ikaslerekin hasi zineten?

a) Hasierak beti izan ohi dira hestruak. Hasieran hiru talde bildu ginen. Bi, Begoñazpi-ko parrokiaren babesean eta bat, Karmelo-n. Guztiz 24-ren bat ikasle. Irakasleak: Martin Basterra, Joanjo Basterra eta Joseba Arrieta.

b) Bigarren urtean ugarituz joan zaizkigun eskola horik. Urte horretan 7 talde izan ziren. Bi, Begoñazpi-ko parrokian eta bost, Karmelo-n. Karmelo-ko talde bi, umeek osotua ziren. Urtearen azkenean, udan, ikastaro bat ere antolatu genuen, Dima-ko Endiabeti baserrian. Irakasle, Patxi Uribarren-ek egin zuen.

c) Urterik urte ugarituz joan zaizkigu ikasleak eta era berean taldeak. Horrela gaur egun arte.

3.- Zenbat talde eta ikasle dituzue gaur egun?

— Orain, guztiz, 39 talde, 765 ikasle eta 30 irakasle ditugu. Taldeak honela banandurik daude:

a) Umeenak: 2 talde. 30 ikasle. Arratsaldeko 7,15 tik 8,15 ra.

b) Ikastolako amenak: 11 talde. 115 ikasle. Arratsaldeko 4,15 tik 5,15 tara.

c) Gaietikoak: 26 talde. 25 irakasle, 320 ikasle. Arratsaldeko 7,15 tik 8,15 ra, eta 8,30-9,30 ra. Talde bik gaueko 10-tan ematen dituzte eskolak. Aurten, astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraleetan ezezik, asteartean eta ostegunetan ere ematen ditugu, tokirik gabe aurkitzen gara-ta.

Oharra: Eskola hauk eta besterik asko ere baditugu gure inguruetan. Esate baterako:

: ikastola bi: Karmelo-koa eta Begoñazpi-koa.

: hartzaindegi bi: Karmelo-koa eta Refugio-koa

: Ikastetxeetako eskolak: Berriotxoan 6 talde bi. Guztiz 67 ikasle eta Colegio Femenino-n, 6 talde. Guztiz 150 bat ikasle. Eta San Salvador-en, talde bat. Guztiz, 23 ikasle.

— Beste ikastetxe batzutan ere sartzekotan ari ziren, eta behar bada oraingo hasiak izanen dira.

— Nagusientzat, Bolueta-ko parrokian eta Betti-lagun gazte taldean ere eman ohi dira.

4.- Nola antolatuak dituzue eskola horiek?

Talde zuzendari bat dugu. Talde honek antolatzen ditu eskola horik. Karmelo-ko parrokiako kultur taldearen babespean dago talde hau. Eta bai ikastolako zuzendaritzarekin, bai Euskaltzaindiarekin harreman bizietan dihardu lanean. Hortik etorri zaio benetako indarra. Bakarrean ezin dugu, gaur egunez, ezer egin.

Hauk dira zuzendaritza horren zereginak:

a) Eskolak urtero antolatu eta hortarako deiak eta agiriak egin.

b) Ikasleak, irakasleei entzun ondoren, maila-ka taldetu.

c) Tokiak eta irakasleak aurkitu.

e) Eskola bakoitzean aukeratutako arduradunekin hilero bilera bat egin. Honela eskoletako berri eta jazote guztiak jakiten ditu.

f) Irakasleekin bi hilabeterik bilera nagusi bat egin, eskolen martxa aztertzeke. Irakasleak, bakoitza bere mailan, hilero alkatzen dira maila bakoitzeko arazoak konpontzeko. Honi garrantzi handia eman diogu aurtengo urte honetan.

g) Talde horrek hitzaldiak eta jaialdiak ere antolatzen ditu, ikasleen eritziak eta kontuan hartuz. Hauk, hizkuntzaren inguruan osogari beharrezkoak ditugu. Gaiak, batez ere, euskal-kulturaren ingurukoak izaten dira, gure taldearen zeregina kultura zabaltzea denez.

5.- Zeintzu dituzue beharrizanik handienak?

Beharrizan nagusi bat dugu batez ere: toki arazoa. Ez da erraza hainbeste talderentzat tokia aurkitzea. Orain arte, Karmelo-ko parroki inguruan eman dira eskola horik, nahiz eta 2 taldek, Maria Reina-ko parrokian eta 5-k Colegio Femenino-n eman. Zer izanen da gerora?

Toki falta handia dugu benetan. Batez ere, orain arte bezala, herritar eskola batzu izatekotan. Tokiak ordaintzen eta, hasi esker, asko garestituko lirarteke gure eskolak. Gogoan har dezagun orain nagusiak 250 pta eta umeek 150 baino ez dutela hilero ordaintzen. Irakasleek ere gure esker ona behar dute, hilean 2.500 pta baino jasoten ez dutenez. Eskola hauk, esan dugunez, herri-eskola batzu egin nahi izan ditugu eta erabat lortu dugu.

6.- Beste jakingarririk?

1.- Aurtengo urrian ikastaro bat ere prestatu genuen irakasleak gertatzeko. Jose Ramon Etxebarria-k eman zuen eta oso interesgarria izan zen.

2.- Alfabetatze mailako eskola bat baino ez dugu. Berau arratsaldean. Guztiz 15 ama. Gauerako eskatu digutenak Euskaltzaindira bidaldu ditugu, gutti izanki.

3.- Irakasle-titulua atartzeko ikastaro bat ere antolatua dugu. Asteartero elkartzen dira. Ikasgaiak Jose Ramon Etxebarria-k ematen ditu. Jende asko etortzen dira. Guztiz 35. Irakasle titulua ateratzeko datozenak era guztietakoak ditugu.



HIZKUNTZA

HIZTEGIA

AGITPROP: **agitazio eta propaganda** delakoaren laburdia.

ALFABETARI: alfabetatzaile.

ANDAPARA: hibaiaren ura errotara daraman kanalea.

ARTA: ardura, kontu.

AUTU: arazo, solas, kontu.

BARATZE: ortu, lur barruti.

BEJONDIZUELA: zorionak zuei, on dizuela (biaje on dizuela).

BERRAS (I): **reanudar, recomendar**, -ado.

BERREUSKALDUN (DU): **revasquizar**, -ado.

BETETZEKE: bete gabe, bate barik.

BIRPLANTEAMENDU: **replanteamiento**.

BULEGARI: **oficinista**.

DAUTZA: daude, dira; etzan aditzaren presenteko hirugarren pertsona plurala (irregularra da).

DESTAINA: **reproche**.

EDOZELA: edonola, nolanahi.

ERRENTAGARRITASUN: **rentabilidad**.

EURREZ: parra-parra, oparo, erruz.

FRANTXIMENT: **franchise, gabacho**.

FRANTXIMENTAPEN: **afrancesamiento**.

GAINBEGIRADA: ganetik egindako begirada, **mirada superficial**.

GAZTELANIAZTAPEN: **castellanización**.

GURBITZ: **madroño** (Bot).

GURPIDE: gurdi-bide.

HARTZ: **oso** (Zool.)

HERKIDE: herri bereko, **paisano**.

HESPARRU: barruti, arlo.

IKER (TU): azter (tu), araka (tu), **investigar**, -ado.

IPINGI: adabaki, betatxu, adabu.

JAGON: babes (tu), zain (du), gorde.

KARGU (TU): kontura (tu), ohar (tu), jabe (tu).

KRISEILU: **farol, candil**.

LORPEN: **resultado, conquista**.

POLITIKARI: (sust.) politikan aritzen dena; politikariek erabakitzen dute.

POLITIKO: (adj.) politikari buruzkoa; hori arazo politiko bat da.

PORROT: txulut, **fracaso**.

TREGOA: **tregua**.

TXAPLETA: **pegote, insignia**.

UGAO: Miravalles, Bizkaiko herri bat

XORTA: mordo, pila, pilaketa.

ZEHAKIZUN: xehetasun, **detalle, pormenor**.

Nortzu, zertzu, zeintzu hitzen deklinabidea

Orainsuko Anaitasuna batetan BATAK/BATZU hitzaren deklinabidea aztertzen genuen. Orduko eskema osotzeko, galdegileen aipamena egiten dugu oraingoan. Hauen deklinabidea mugagabe bezala osatu behar da (ikus "Sustru Bila", 44. horrialdeko kasua). Eta nahiz eta zilegi izan TZU atzizki pluralizatzailerik gabe erabiltzea, galdera zuzenki pluralizazioarekin egitean, egokiago ikusten dut, galdegileei TZU atzizki erantzea.

Hara nola geratzen den galdegileon deklinabidea.

KASUA

Nominatiboa	Nortzu	Zertzu	Zeintzu
Ergatiboa	Nortzuk	Zertzuk	Zeintzuk
Datiboa	Nortzuri	Zertzuri	Zeintzuri
Genitiboa	Nortzuren	Zertzuren	Zeintzuren
Bizidunen inesiboa	Nortzurengan		Zeintzurengan
Bizidunen direktiboa	Nortzurengana		Zeintzurengana

Hemen ere, deklinabideko kasu batzu ipini ditugu soilik. Hauetan finkaturik, erraz bila daitezke beste guztiak. Hona hemen zenbait adibide:

Zertzu esan dituzte lehengo mahai inguruan?

Nortzuri ez zaie gustatu han esan dena?

Zeintzuren da errua?

Baina galdegilea substantibo bati loturik doanean

(aurretik, prezeski), bigarren hau deklinatzen da soilik, eta galdegilea nominatibo kasuan bezala uzten da, hots, deklinatu gabe. Adibidez:

Zertzu berezitasun dituzte zure herri inguruko bideak?

Zeintzu arazok kezkatzen zaituzte?

Zertzu jokabideri ez deritzezu ongi?

J. R. Etxebarria



BITXIA

ESKU LANETARAKO GAIAK

DOCTOR AREILZA, 55
Telf. 431 72 93
BILBAO - 10



**Gaurkoa zarenorri
guk ezer eskaintzean,
biharko emakumeari ere
ari gara eskaintzen.**

Laguntza berriak
zuri ematean,
zure nekeak, zure kezka zaharrak
dihardugu arintzen.

Berriak dira,
zuretzat ditugun asmoak:
onhartzten zailtxoak beharbada,
guztiantzat baitira berriak.

Baina zein ederra den pentsatzea,
gaurko urrats zailok
aurrera gaituztela bideratzen,
biharko digutela
bidea urratzen!

Emakumearen Bankua.
Gaurkoa eta Biharkoa

BANCO DE BILBAO





URREZKO



ASTABELARRIAK

Aste honetan, gure hatz seinalatzaile gaiztoa ez doakio txartel konkretu bati, baizik eta Euskal Herriko hiri guztietan zehar maiz ikus daitekeen esaldi xebe bati.

Ez dakigu zergatik den. Beharbada dirua eta orijinaltasuna elkarrekin ibiltzera oso ohiturak ez daudelako. Bekatu hori, dena dela, ez dugu soil-soilik etxekoa, hauzoenean ere **my dream, mon rêve** eta **mi sueño** gisakoak maiz agertzen baitira. Kontua da, ordea, hemen, hori esateko, NIRE (edo GURE) AMETZA ikusten dela ia beti, GURE AMETSA izan beharrean. Zeren AMETZA haritzaren antzeko zuhaitz bat baita, AMETSAK, aldiz, lotan gaudeneko fantasiak diren artean.

Ale honetako astabelarriak, beraz, beren txaleta **gure ametza** izenaz bataiatuak duten guztiei eskaintzen dizkiegu bihotzez. Ez dago zergatik.

1.-Eme. aoraza. 2.-Zabatasun. 3.-ad. Ikara. 4.-Gau. ell. 5.-Ura. B. Ke. 6.-Nilo. A. er. 7.-K. l. Ero. 8.-Nau. A. ort. 9.-Atzelariaz. 10.-Sulzan. Aza.

Goitik behera:

1.-Ezagun. naS. 2.-Madenkatu. 3.-eb. ual. uzl. 4.-A. O. Ez. 5.-al. Ala. 6.-oil. Bal. An. 7.-rake. or. 8.-asal. Eha. 9.-Zurkeriaz. 10.-Ana. eroitza.

Luzetara

AZALPENNA:

1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

GURUTZEGRAMA

Luzetara

1.-Ezaguten den. (alderantziz) Done. 2.-Gogo txarra... 3.-(ald.) Kontsonante izena. (ald.) Bi eta bi. (ald.) Bela... haundi. 4.-Bokala. Bokala. Ezetza emateko hitza. 5.-... Nota musikala. Galderatan bi gauza bereizteko. 6.-... Uretan arnasa galdu. Euskal Unibertsitatea nahi duzu? ... adierazteko atzizkia. 7.-(ald.) Zerbait norberaganatu. (ald.) Gerkerazko letra. 8.-(ald.) Deitura ezaguna Euskal Herrian. Gaixoa. 9.-Maltzurkeriaz, faltsokeriaz. 10.-Emakume izen... (ald.) Hegazti harrapalaria.

Goitik behera:

1.-Arra ez dena. (ald.) 11. hilabetea. 2.-Zabal izen... 3.-(ald.) Hura gaur etorri... Dardara. 4.-Egunen arteko... (ald.) Zenbait animaliek azalean dute. 5.-Iturriari dago... Kontsonantea. Suari dario. 6.-Egiptoko hibaia. Bokala. ... Nota musikala. 7.-Kontsonantea. Bokala. Zentzurik gabeko... 8.-Hark ni ekarri... Bokala. (ald.) Harmaz egiten dute... 9.-Atzean jokatzen duenaz. 10.-Europako Nazio batuen... Baratzeko landarea.

EUSKALDUNAK,
erosterakoan,
euskarazko
publizitatea
kontutan
hartzen du
anaitasuna



ALFABETA- TZEN



Kaixo, ikaskide!

Hemen duzu ALFABETATZEN lehen liburua. Lehen maila hontan, eguneroko gai arruntak erabiliz, euskaraz irakurtzen eta idazten irakatsi nahi dugu.

Berton aurki ditzakezu: euskalkien arazoa, euskara teknikoaren erabilketa, eguneroko gorabeheren euskaldunketa, eta abar.

Arrasateko Teknik Ikastegiari esker egindako liburua hau euskuratu nahi baduzu, eska ezazu helbide hontara:

Editorial Cinsa — «Alfabetatzen» — Pelota, 4-1. — Bilbao-5.

TXOKO EDER Jatetxea

Menestra izugarriak,
 legatz solomo eta
 biper bete itzelak!!!

Barrenkale Barrena, 6
 Bilbo Zaharra



MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas
 tresnak, Igeritekoak, Uretako Jan-
 tziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI
 Muelle de Uribitarte, 15

BILBO-9

Herriarekin. Herriarentzat



Caja Laboral.



**CÁJX LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZIA**